

www.youthxchange.net - Gazteak aldaketaren alde

youthXchange

Kontsumo iraunkorrerako hezkuntzako esku-liburua



www.unesco.org

Hezkuntza, Zientzia eta
Kulturarako Nazio Batuen
Erakundea

Tel.: (33 1) 45 68 10 36

Fax: (33 1) 45 68 56 22

Telex: 204461 Paris;

270602 Paris

Hezkuntza, Zientzia
eta Kulturarako Nazio
Batuen Erakundeak
UNESCO

Garapen Iraunkorren
aldeko hezkuntza

7, place de Fontenoy
75732 Paris Cedex 07
France

Tel.: (+33 1) 456 810 36

Fax: (+33 1) 456 856 35

E-mail: j.heiss@unesco.org

www.unesco.org/education



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA
INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO



www.unep.org

Nazio Batuen Ingurumen
Programak (PNUMA)
P.O. Box 30552 Nairobi, Kenya
Tel.: (254 2) 62 12 34
Fax: (254 2) 62 39 27
E-mail: cpiinfo@unep.org
Web: www.unep.org

Teknologia,
Industria, Ekonomia
eta Kontsumo
Iraunkorrerako
dibisioa

39-43, quai André-Citrôen
75739 Paris Cedex 15 France
Tel.: (+33 1) 443 714 50
Fax: (+33 1) 443 714 74
E-mail: sc@unep.fr
www.uneptie.org/sustain



Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila

- **1.zk. 2000ko Azaroa.** "Ingurugiroan Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioak Egindako Gastu eta Inbertsioen Inpaktu Ekonomikoa"
- **2.zk. 2001eko Maiatza.** "2001 Ekobarometro Soziala"
- **3.zk. 2001eko Urria.** "Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan: Laburpena"
- **4.zk. 2002ko Urtarrila.** "Garapen jasangarrirako Europako Batasunaren estrategia"
- **5.zk. 2002ko Otsaila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Inbentarioa" (Laburpena)
- **6.zk. 2002ko Apirila.** "Bizikletan,kerik gabeko hirietarantz"
- **7.zk. 2002ko Maiatza.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Beharrezko Material Guztia. BMG 2002"
- **8.zk. 2002ko Uztaila.** "Garraioa eta Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. GI 2002 Adierazleak"
- **9.zk. 2002ko Abuztua.** "Sustainable Development in The Basque Country"
- **10.zk. 2002ko Urria.** "Ingurumen Adierazleak, 2002"
- **11.zk. 2002ko Azaroa.** "Berotegi-efektua Eragiten Duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan 1990-2000"
- **12.zk. 2002ko Azaroa.** "Ingurumena eta Lehiakortasuna Enpresan"
- **13.zk. 2002ko Abendua.** "2002ko Industria Ekobarometroa"
- **14.zk. 2003ko Urtarrila.** "Hiria, haurrak eta mugikortasuna"
- **15.zk. 2003ko Urtarrila.** "Klima-aldaketa"
- **16.zk. 2003ko Urtarrila.** "Jasangarritasunerako hezi. Eskolako Agenda 21: eskolarentzako gida" (CEIDA)
- **17.zk. 2003ko Otsaila.** "Europako Erkidegoaren Ingurumeneko Seigarren Ekintza Programa"
- **18.zk. 2003ko Otsaila.** "Erreforma Fiskal Ekologikoa Euskal Herrian"
- **19.zk. 2003ko Apirila.** "Garapen Jasangarriari buruzko Johannesburgeko Nazioarteko Goi-bilera"
- **20.zk. 2003ko Maiatza.** "Euskal Autonomia Erkidegoan Tokiko Jasangarritasunaren Adierazleak Kalkulatzeko Gida Metodologikoa. Tokiko Agenda 21-eko Adierazleak"
- **21.zk. 2003ko Maiatza.** "Ekoeraginkortasuna 2003"
- **22.zk. 2003ko Maiatza.** "Hirien plangintzan aplikatu beharre o jasangarritasun-irizpideak"
- **23.zk. 2003ko Uztaila.** "Berotegi-efektua Eragiten Duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan (1990-2001)"
- **24.zk. 2003ko Iraila.** "Energia eta Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. 2003"
- **25.zk. 2003ko Uztaila.** "Zementuaren sektorearen ingurumen-ekarpena Euskal Autonomia Erkidegoko Garapen Jasangarriari (2003-2006)"
- **26.zk. 2003ko Uztaila.** "Sektore Kimikoko enpresek Garapen Jasangarriari egiten dioten Ingurumen-ekarpena 2003-2006"
- **27.zk. 2003ko Urria.** "Altzairugintza Sektoreko Enpresek Garapen Jasangarriari egiten dioten Ingurumen-ekarpena (2003-2006)"
- **28.zk. 2003ko Azaroa.** "Euskal Autonomia Erkidegoko 2003ko Ingurumen Adierazleak"
- **29.zk. 2004ko Otsaila.** "2002ko Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi Gasen Emisioen Inbentarioa"
- **30.zk. 2004ko Martxoa.** "2004ko Ekobarometro Soziala"
- **31.zk. 2004ko Martxoa.** "Euskadi nire autorik gabe. 2003. Euskal Udalerrietako Mugikortasun Iraunkorerrantz"
- **32.zk. 2004ko Ekaina.** "TOKIKO AGENDA 21. Ekintza-planak martxan jartzeko gida"
- **33.zk. 2004ko Ekaina.** "TOKIKO AGENDA 21. Parte-hartzeko mekanismoak martxan jartzeko gida"
- **34.zk. 2004ko Ekaina.** "Ore eta paperaren sektoreko enpresen ingurumen-ekarpena garapen iraunkorrari. 2004-2006"
- **35.zk. 2004ko Uztaila.** "Hondakin arriskutsuen kudeatzaileen sektoreko enpresen ingurumen-ekarpena garapen iraunkorrari"
- **36.zk. 2004ko Iraila.** "Euskal Autonomia Erkidegoan mugikortasun iraunkorraren udal-planak egiteko gida praktikoa"
- **37.zk. 2004ko Iraila.** "Burdin Galdaketaren, ez-burdinazko Galdaketaren eta ez-burdinazko Metalurgiaren Sektoreko enpresek Garapen Iraunkorrari egiten dioten Ingurumen-ekarpena (2204-2006)"
- **38.zk. 2004ko Urria.** "Tokiko Agenda 21. Aurrera egiteko komunikatzea. Prozesuan komunikatzeko estrategien eskuliburua"
- **39.zk. 2004ko Otsaila.** "Iraunkortasuna aintzat hartzen duten jaiak"
- **40.zk. 2004ko Otsaila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko 2004ko Ingurumen Adierazleak"
- **41.zk. 2004ko Azaroa.** "2003ko Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioen inbentario"
- **42.zk. 2004ko Abendua.** "Euskal Autonomia Erkidegoan Plan eta Programen Ingurumen-inpaktuaren Ebaluazio Bateratua Aplikatzeko Gida"
- **43.zk. 2005eko Urtarrila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Aztarna Ekologikoa"
- **44.zk. 2005eko Apirila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko garraioaren kanpo-kostuak. MUGIKOST'05"
- **45.zk. 2006ko Urtarrila.** "Gazteak aldaketaren alde. Kontsumo iraunkorerrako hezkuntzako esku-liburua"

Copyright © 2002 UNESCO-UNEP

Argitalpen hau bere osoan edo zati batean erreproduzi daiteke hezkuntza-arloan eta irabazi-asmorik gabe erabiltzeko. Horretarako, ez da egile-eskubideen jabearen baimen berezirik behar, betiere iturria propio aipatzen bada.

UNESCO-UNEPek eskertuko luke argitalpen hau iturri gisa edo argitalpen honen zatiren bat erabiltzen duen edozein argitalpenaren kopia jasotzea.

Argitalpen hau ezin da saldu, ezta merkataritzan edo irabazi-asmoz erabili ere, aldeaz aurretik UNESCO-UNEPek propio baimen idatzia eman gabe. Jatorrizko ingelesezko lehen argitalpena: 2002
Lehen argitalpena espainieraz: 2004
Lehen argitalpena euskaraz: 2005

Erabili diren izendapenek eta gaien aurkezpenek ez dute UNESCO-UNEPen iritzirik adierazten, herrialde, lurralde, hiri edo inguru baten egoera juridikoari edo bertako agintariei buruz, ez eta leku horien mugei buruz ere.

Gainera, argitalpen honen edukiek ez dute zertan adierazi Nazio Batuen Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Erakundearen eta Nazio Batuen Ingurumen Programaren iritzia edo politikak. Hainbat izen edo merkataritza-prozesu aipatu izanak ez du esan nahi horiek onesten edo gomendatzen direnik.

Nazio Batuen argitalpena: ISBN 92-807-2128-3
Lege Gordailua: BI-3322-05

Hitzaurrea

Lurra Planetak krisialdi global latzari egin behar dio aurre. Ekonomia eta gizarte garapena zama jasanezina ezartzen ari zaio gure ingurugiroari. Produkzio eta kontsumo patroï desegokiek eta baliabideak modu desberdinean banatzeak *Iparaldearen* eta *Hegoaldearen* arteko desberdintasuna areagotu dute.

Kalkulatzen denez, munduko gainerako aldeetan mundu garatuan bezala kontsumituko balute, *lau Lur planeta gehiago beharko* genituzke.

Gaur egun, gazteak talde garrantzitsua dira kontsumo-gizarteetan, eta *orain* garatzen dituzten ohiturak erabakigarriak izango dira *etorkizuneko* kontsumo-patroietarako. Kontsumitzaile gisa hartzen dituzten erabakiek gero eta eragin handiagoa dute merkatuetan eta bizimoduetan. Beraz, bereziki aintzat hartu behar dira gazteak, gure kontsumo-patroï desegokiak alde batera utzi eta garapen iraunkorarekin bat datozen patroïak ezartzeko ahaleginetan.

NAZIO BATUEN INGURUMEN PROGRAMAK (PNUMA), NBEren ingurumenari buruzko kontzientzia gisa, nabarmentzen du garrantzitsua eta premia larrikoa dela kontsumo eta produkzio patroïak eta jarrerak aldatzea eremu globalean.

HEZKUNTZA, ZIENTZIA ETA KULTURARAKO NAZIO BATUEN ERAKUNDEAK (UNESCO), berriz, hezkuntza hartzen du funtsezkotzat jarrerak, balioak eta jokabidea moldatzeko, bai eta etorkizun iraunkorra eraikitzeke gaitasunak, trebetasunak eta konpromisoa garatzeko ere.

Gazteak aldaketaren alde programaren bitartez, PNUMA eta UNESCO erakundeek zera erakutsi nahi diete gazteei: denok gauza ditzakegula mundu hobe lortzeko nahiak gure eguneroko ekintzetan.

Klaus Töpfer,
UNEPeko Zuzendari Exekutiboa

Koichiro Matsura,
UNESCOren Zuzendari Nagusia



Esker ona

Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) eta Nazio Batuen Ingurumen Programak (PNUMA) esker ona adierazi nahi diete "GAZTEAK ALDAKETAREN ALDE" *Gida* honen produkzioan parte hartu duten eta bertan iruzkinak egin dituzten lagunei, lan horretan eman duten denboragatik eta egindako ahaleginagatik.

Argitalpen hau MÉTA erakundeak (Komunikabide, Ekologia eta Teknologia Elkarteak), PNUMAren Teknologia, Industria eta Ekonomia Dibisioak (DTIE), eta UNESCOren Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Teknikoko eta Lanbide Hezkuntzako Dibisioak (ED/STV/STE) prestatu dute, CONSUMERS INTERNATIONAL erakundearekin lankidetzan.

Proiektu honetan, honako hauek osatu zuten MÉTAREN lantaldea: Patrizia Lugo Loprienok, Madhavi Bhatt-ek eta Peter Williams-ek (kontzeptua, produkzioa eta grafismoa), . Lana koordinatzeaz PNUMA DTIE elkarteko kide aditu Isabella Marras eta Julia Heiss, UNESCO - ED/STV/STERen programaren espezialista, arduratu ziren. *Consumers International* erakundeak Christine Knights eta Alina Tugend andreak aholkularitza eta asistentzia lanak egin zituzten argitalpenean. Bereziki eskerrak eman nahi dizkiogu Bas de Leeuw PNUMA-DTIEko Estrategien Unitateko eta Produkzio zein Kontsumo Zerbitzuetako Buruari, proiektuari eman dion laguntzagatik.

Gazteak aldatetaren alde obraren Mexikoko taldeari ere eskerrak eman nahi dizkiogu lan honetarako izan duen gogo biziagatik. Honako pertsona eta erakunde hauek osatu dute talde hori: Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza eta Gaikuntza Zentroko (CECADESU) Tiahoga Ruge, Ligia Hernández eta Martha Merino andreak; Mexikoko Gazteria Institutuko David Oviedo Gonzalezek; Kontsumitzailearen Prokuradoretza Federaleko (PROFECO) Carlos Rafael Valencia Parrak, Diego Maserak (UNEP-ROLAC) eta Adriana Zacarias Farah andreak (UNEP-DTIE).

Espaniararako itzulpena Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza eta Gaikuntza Zentroak (CEDADESU) eta Mexikoko Ingurumen eta Natur Baliabide Idazkaritzak (SERMARNAT) egin zuten, UNEP-DTIERen laguntzarekin. Zaragozako Ekologia eta Garapena Fundazioak (ECODES) egin ditu HispanoAmeriketako irakurleentzako kasuen eta laukien berriskuspen, edizio eta egokitzapen lanak. Kantabriako Kontsumitzaileen Eskola arduratu zen Gida honen maketazioaz eta lehenengo edizio inprimatua produzitzeaz. Horrez gain Cataluniako Udalak gidaren adaptazioa eta katalanieraz itzuli egin du.

Bi dokumentu hauetan oinarrituta Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Kontsumo Zuzendaritzak eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko IHOBE-Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoak kolaboratu egiten dute gida euskeratzeko ete Euskadiko errealitateri egokitzeko. Horrela sortzen da euskara-gaztelaniazko lehenengo Youthxchange gida.

Aurkezpena

50 urte barru, planetan 9.000 milioi lagun izango direla aurreikusten da, hau da, gaur egungo kopurua % 50 handituko da. Biztanleriaren gorakada horrek presio handia eragingo du natura-baliabideetan. Gainera, kontuan hartzekoa da lehendik ere baliabide horiek kalte larriak jasan dituztela giza jardueraren ondorioz, eta, beraz, horiek behar bezala erabiltzen ikasten ez badugu, behin betiko desagertuko dira.

Arazo horretaz jabeturik, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailerik, IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez, Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren mendeko Kontsumo Zuzendaritzarekin batera, kontsumitzaile eta erabiltzaileen informazioaren eta prestakuntzaren alde egin nahi izan dugu, geroz eta arduratsuagoak izango diren kontsumo-ohituretara bideratzeko.

Gure ustetan, kontsumo eraginkorra eta iraunkorra sustatzea da aurrera begira dugun erronka nagusietako bat, eta, horren haritik, inplikaturako sektoreek (kontsumo-ondasunak produzitzen eta erosten dituztenak eta legeak ezartzen dituztenak barne) ingurumena babestu eta zaintzarekin konpromiso bizia har dezaten lortzea.

Orobat, garrantzi handikoa da gazteek ere konpromiso horrekin bat egitea, eta kontsumo-ohituren aldaketa horren funtsezko eragile bihurtu daitezkeen lortzea, baliabideen erabilera iraunkorra sustatuz, birziklatzea bultzatuz eta erosketa arduratsuak eginez, ez soilik ingurumenari begira, baita ohitura horiek gizateriari eta gizarteari oro har ekarriko dizkieten onurak aintzat hartuta ere. Nabarmentzekoa da planetako eremu batzuetan kontsumo-indizea oso altua dela; gizateriaren zati handi batek, aldiz, ezin ditu bere funtsezko beharrak bete. Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, uste osoa du gazteek zeresan handia dutela, kontsumo patroia iraunkorragoetarako trantsizioa gidatze aldera.

Pozik gaude, beraz, UNESCOk eta UNEPek argitaratutako 'Youth x Change' gida hau egokitu eta argitaratzeko egindako lanarekin. Ingeleseko bertsioa 2002an plazaratu bazen ere, horren edukiak indarrean jarraitzen du egun, eta oso tresna baliagarria izan daiteke egunero-egunero ahalegin txikiak eginez ingurumena zaintzeko aurrerapauso handiak egin ditzakegula ohartarazteko. Hain zuzen ere, gidak animalien eta landareen espezie guztiak errespetatu beharra nabarmentzen du (areago horietako batzuk desagertzeko bidean daudela aintzat hartuta), baita bizi-kalitateari dagokionez gizakien artean dauden desoreka handiak murriztu beharra ere. Hala, mundua eta harekin dugun harremana hobetzeko bidean egongo gara.



Esther Larrañaga,
Ingurumen eta Lurralde
Antolamendu sailburua



Ana Agirre,
Industria, Merkataritza
eta Turismo sailburua



Edukia

6 Kontsumo iraunkorraren hastapenak

Kontsumo iraunkorraren kontzeptua. 4 faktorea eta 10 faktorea. Aldaketarako tresnak.

8 Gazteak Aldaketaren Alde Proiektua (GAA)

Gazteak munduan. Informazioaren zeregina. Gazteak eta Kontsumo iraunkorra gaiari buruzko PNUMA/ UNESCOren ekimena.

10 Bizimodu iraunkorrako baten alde

Kontsumo iraunkorra: alderdi ugari duen gaia. Egintzak eta kopuruak. Gaien banakatzea.

12 Zaindu zeure burua

Elikagaien krisia. Informazio gehiagoren beharra. Nola murriztu substantzia kimikoen erabilera? Hiriko airearen kutsadura.

16 Hirian barrena mugitzen

Mugikortasuna. Karbono-emisioak. Autoarekiko mendekotasuna.

18 Bidaian

Turismo jendetsuaren eragina. Opor iraunkorrak.

20 Gutxitu hondakinak

Produkzioa: Egintzak eta kopuruak. Diseinu ekologikoa. Bost oinarriak.

25 Optimizatu energiak

Kontsumoa: egintzak eta kopuruak. Energia berriztagarriak. Energia aurrezteak.

28 Iragar ezazu eguraldia

Klima-aldaketa. Ozono-geruzaren narriadura. Egintzak eta kopuruak.

31 Aurreztu ura, ziurtatu ura

Kontsumoa: egintzak eta kopuruak. Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko desoreka: azterketa kritikoa.

34 Erosketa arduratsuak

Haurren lana. Hezkuntzarako eskubidea. Lan-baldintzak, genero-desberdintasunak, giza eskubideak.

39 Bizi eta utzi bizitzen

Animaliekiko esperimenduak eta ankerkeria. Bioaniztasuna. Galzorian dauden espezieak.

43 Ekin

Globalizazioa, aukera informatua, kontsumitzaileen zaintzea areagotzea. Sozialki arduratsuak diren inbertsioak.

47 Ezagutu ezazu herri globala

Komunikabideen hezkuntza maila. Publizitatearen eragina. Zure eskubideak eta betebeharrak. Idoloak eta entzuleria.

50 Sarea: erabiltzeko jarraibideak

Zergatik Internet?. Sareetan lan egitea, ikaskuntza-tresna gisa. www.youthxchange.net: gure gunea.



Kontsumo iraunkorraren hastapenak



Hemendik aurrera KI inzialak ere erabiliko ditugu kontsumo iraunkorra adierazteko.

kontsumo iraunkorra (KI) zera da: gizarte eta ingurumen arloko desorekei konponbide bideragarriak emateko ekintza-sorta, eta konponbide horiek denok jokabide arduratsuagoa izanik lortzen dira. KIk, bereziki, zerikusia du produktuen eta zerbitzuen produkzioarekin *zein banaketarekin*, bai eta produktu eta zerbitzu horiek erabiltzearekin *zein ezabatzearekin ere*; era berean, horien bitzita-zikloei buruz berriz pentsatzeko baliabideak ematen ditu. Helburua honako hauek ziurtatzea da: komunitate global osoaren oinarritzko beharrak asetzen direla, gehiegikeriak murrizten direla eta ingurumena kaltetzea saihesten dela.

KJ garapen iraunkorraren osagarria da, eta sekulako garrantzia du Nazio Batuentzat:

Definizio hori modu zabalean onartuta dago; Brundtland Txostenak eman zuen (Gro Harlem Brundtland et al., *Nuestro Futuro Común*, WCED, New York -Oxford, Oxford University Press, 1987, 43. or.).

“Garapen horrek gaur egungo beharrak estaltzen ditu, etorkizuneko belaunaldien beharrak asetzeko aukerak arriskuan jarri gabe.”

Aldaketarako behar diren tresnak ematea gobernuen, erakunde arautzaileen, GKEen eta enpresen erantzukizuna da. Hala ere, kontsumitzaile / herritar globalaren zeregina funtsezkoa da talde horiek ekintza azkarragoak eta egokiagoak gauzatzera bultzatzeko.

Horrexegatik, Nazio Batuen bi erakundek, UNESCOk eta PNUMAk, elkarlanean dihardute *gazteak* bizimodu iraunkorragoek eskaintzen dituzten aukerez jabe daitezten lortzeko, eta desberdintasun horiek nabaritzen hastea lortzeko, horien eragineroko bizitzatik hasita.

Eta, zer egiten dugu Euskadin?

UNEP-DTIE KIren esanahia eta ondorioak aztertzen ari da munduko eskualde guztietako adituekin. Erakundearen sarea eztabaidarako eta informazioa trukatzeko foroa da, eta guztien ekarpenak jasotzeko irekita dago. Harremanetan jartzeko jo ezazu honako helbide honetara: www.uneptie.

Eusko Jaurlaritzaren zenbait sailek lanean dihardute Ingurumenaren aldetik Iraunkorra den Euskal Kontsumo Plana (2005-2010) garatzen, Euskadin ingurumen-arloan iraunkorra izango den kontsumoa sustatze aldera. Plan hori Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren (2002-2020) barruan kokatzen da, eta estrategia horri jarraiki kontsumo iraunkorraren arloan jarduera koordinatu eta eraginkorrak garatzeko adostu diren

konpromisoak betetzea du xedetzat. Planak honako sei arlo hauek hartzen ditu barnean: energia-kontsumoa, ur-kontsumoa, garraio-ohiturak, elikagaien eta bestelako produktuen kontsumoa, eta hiri-hondakinak sortzea. Plan hori onartzeak berebiziko garrantzia izango du kontsumo-arloan, kontsumoari lehen aldiz iraunkortasunaren ikuspegitik helduko zaiolako; Eusko Jaurlaritzaren zenbait sailek elkarlanean jardungo dute plana aurrera eramate aldera.



KIren definizio guztiek nabarmentzen dute, oro har, lehentasuna eman behar zaiola gutxiago kontsumitzeari; ez beti, ordea. Beste modu batean kontsumitzea, egoki kontsumitzea, alegia, da erronka nagusia. Kasu askotan, zera da behar dena, kontsumitzeko aukera beste modu batean banatzea.

Munduan, *2 mila miloi* lagunek baino gehiagok baliabide gehiago behar dituzte bizirauteko soilik:

“Munduan pertsona askok gehiago kontsumitu behar dute, bizirauteko. Beste askok modu arduratsuagoan aukeratu beharko dute. Azkenean, horrek zera ekarriko luke, baliabideak gutxiago erabiltzea, emisio gutxiago eragitea eta munduko biztanle guztien beharrak asetzea.”

UNEP, *Gazteak eta Kontsumo Iraunkorra, Nairobi/Paris, 1999ko urria.*

4. faktorearen eta 10. faktorearen ikuspegia baliatzea dugu gai horri heltzeko modu bat; horien arabera, hurrengo hamarkadetan gaur egungo ondasunen halako bi produzitu behar genituzke, gure baliabide baliotsuen erdia erabiliz. Era berean, ahaleginak egin behar ditugu 2050. urtean herrialde industrializatuen baliabideen produktibitatea bikoizteko. Produkzio eta kontsumo ereduak eraginkorragoak izan behar dute —oraingoeekin alderatuta, halako bitik laura— baliabideak luzaragoan eta modu bidezkoagoan eskuratu nahi baditugu.

Ernst von Weisäcker, Amory B. Lovins eta L. Hunter Lovins, *Factor 4: Aberastasuna bikoiztu, baliabideen erabilera erdira murriztu. Earthscan publications, Erresuma Batua, 1998.*
www.factor10-institute.org

KIren kontzeptua konplexua da, eta batzuetan, bai eta ulergaitza ere.

Gai horri buruzko informazio gehiago lortzeko:

www.uneptie.org/sustain

www.unesco.org/education/tlsf/theme

Definizio gehienek honako ezaugarri hauek hartzen dituzte barne:

- gizakien beharrak asetzea;
- bizi-kalitate ona bultzatzea, bizitza-estandar duinen bidez;
- aberatsek eta pobreek baliabideak partekatzea;
- etorkizuneko belaunaldiak aintzat hartuta jardutea;
- produktuak kontsumitzean, kontuan izatea produktu horiek "sehaskatik hilobiraino" duten eragina;
- baliabideen erabilera, hondakinak eta kutsadura txikiagotzea.

Iturria: *Teaching and Learning for a sustainable future –a multimedia profesional development programme (Etorkizuna iraunkorra izateko Irakastea eta Ikastea – lanbidean garatzeko programa multimedia bat), UNESCO, 2001.*



Gazteak Aldaketaren Alde Proiektua (GAA)

ZUREA AL DA



ETORKIZUNA?

2000. urtean, UNEPEk eta UNESCOk 18tik 25 urtera bitarteko 10.000 gazte elkarrizketatu zituzten. Gazte

horiekin honako gai hauei buruzko elkarrizketa izatea zen helburua:

- Gazteek Kontsumo iraunkorraren aurrean duten **kontzientzia** eta interes maila.
- Zer **konpromiso** maila duten iraunkortasunarekiko.
- Etorkizunari buruz duten ikuspegia, eta kontsumo-patroi arduratsuagoak garatzen aitzindari gisa izan **lezaketen zeregina**.

Inkestak erakutsi zuen gazteak anbibalenteak direla kontsumo-patroiei dagokienez. Bereziki, elkarrizketatuek:

- Adierazi zuten, etorkizunari begira, honako hauek direla euren kezka nagusiak: ingurumena, giza eskubideak eta osasuna;
- Produktuak erabiltzeko moduak ingurumenean izan dezakeen eragina ulertzen dute, baina ez dira jabetzen euren kontsumo-ohiturek ingurumenean izan dezaketen eraginaz.
- Oro har, mundua hobetzeko, nahiago dituzte banakako ekintzak taldekoak baino.

Emitza horiek aztertuta, zera ondorioztatu zuten PNUMAk eta UNESCOk, gazteek KIren esanahiari eta erronkari buruzko informazio fidagarria, garbia eta eskuragarria behar dutela. Inkesta hori honako web-orri honetan dago: www.uneptie.org/youth_survey; www.unesco.org/education/youth_survey

2050. urterako, munduko biztanleria % 50 ugaritzea espero da; beraz, gure planetako biztanle-kopuru osoa ia 9 mila milioi izango da. Hazkunderik handiena garapen-bidean dauden herrialdeetan gertatuko da.

Biztanleriaren hazkundeak *sekulako presioa* eragingo die gure natur baliabideei, eta denok gure etxetat dugun planeta honen bioaniztasunari eta oreka ekologikoari. Horregatik, beharrezkoa da gure baliabideak ulertzeko modua aldatzea, eta, are gehiago, baliabide horiek erabiltzen ditugun modua aldatzea. Kontsumo iraunkorra bultzatzea inoiz baino *premiazkoagoa* da orain.

Munduko biztanleen erdiak 20 urtetik beherakoak dira, eta gazte guztien % 90 garapen-bidean dauden herrialdeetan bizi dira. Ekonomia globaleko funtsezko protagonistak dira gazteak, eta etorkizun hurbilean, horiek izango dira aldaketaren eragile nagusiak. Gazteen energia, motibazioa eta sormena funtsezko elementuak dira aldaketa gauzatzeko.

Gida hau eta elkaturiko Interneteko gunea prestatzaileei gazteak proiektu honetan nahasteko lanean laguntzeko *tresna-sorta gisa* sortu dira. Horrez gain, honako bi helburu hauek ere lortzeko diseinatu da: gazte-taldee, GKEei eta irakasleei KIri buruzko kontzientzia pizten laguntzeko eta gazteek *teoriatik praktikara* pasatzeko aukera izatea errazteko.

Oso aintzat hartu behar dugu zer eta nola *produzitzen* eta *kontsumitzen* dugun. Baina, hainbesteko kosturik gabe lortzeko, guk —kontsumitzaile garenez— zera behar dugu:

- Informazio garbia.
- Produktu eta zerbitzu iraunkor eskuragarriak.
- Azpiegitura egokia.

Horregatik, eta gazteei Kontsumo iraunkorra errazago eskuratzeko aukera ematearren, proiektu honek ikuspegi zabala eta barneratzailea erabiltzen du. Adibidez, janari osasungarria, sexuaren negozioa edo komunikabideen nagusitasuna ez dira beti KIrekin lotura estua duten gaitzat hartzen; gida honek, ordea, kontsumitzailearen kontzientzia garatzeko *faktore garrantzitsutzat* hartzen ditu.

Zein dira euskal gazteen kontsumo-ohiturak?

Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Zuzendaritzak egin duen azterketa baten arabera, diru-sarreraren iturriak dira gazteen kontsumo-ohiturak bereizterakoan kontuan hartu beharreko faktore nagusia. Gazteenek etxean ematen dieten dirua bakarrik dute beren beharrei aurre egiteko; adinean aurrera egin eta lanean hasi ahala, berriz, independentzia ekonomikoa iristen da, eta horrek kontsumorako aukera gehiago ematen dizkie.

Hileko aurrekontuaren banaketa ere desberdina da gazteen adinaren arabera. Inkesta egin zaien gehienek onartzen dutenez, beren diru-sarreraren zati handi bat "lagunekin irteteko" baliatzen dute; independentzia-maila igo ahala,

berriz, aisiarako aurrekontua murrizten da, elikaduraren eta etxebizitzaren mesedetan. Gainera, nabarmentzekoa da gazteenek —eta, ondorioz, erosteko ahalmen txikiena dutenek— aisia- aukeren prezioa salatzen dutela, baita alternatiba-falta ere. Azterketaren arabera, gazteek aisian (lagunekin irteten), telekomunikazioetan, garraioan, irakaskuntzan eta prestakuntzan gastatzen dute bereziki. Bestetik, etxebizitza, autoa eta bidaiak dira gehien desiratzen dituzten gauzak (erosi nahi baina eskuratu ezin ditzaizketenak). Gehien-gehienek Internet erabiltzen dute; % 20k soilik erabiltzen du, ordea, produktuak erosteko tresna gisa.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Zuzendaritza



Iturria: Munduko Gazteria
2000, POPULATION REFERENCE
BUREAU: www.prb.org

Lurrean bizi garen
6.000tik gora biztanleen
**laurdenak baino
gehiago** —1.700
milioi— 10etik 24 urtera
bitartekoak dira; adin-
talde hori, beraz, inoiz
helduarora iritsi den
multzorik handiena
da. 10etik 24urtera
bitartekoen % 86
garapen-bidean dauden
herrialdeetan bizi dira.
Herrialde horietan,
gazteen proportzioa askoz
ere handiagoa da herrialde
garatuenetan baino.

**10etik 24 urtera
bitarteko biztanleak**
(milioiak-guztizkoaren %)

Mundua, 2005. urtea	1.755	27
Herr. garatuenak	238	20
Herr. gutxien garatuak	1.517	29
Afrika	294	33
Asia	1.080	28
Ipar Amerika	71	21
Latinoamerika	161	30
Europa	141	21
Ozeania	8	24

Informazio eskuragarria, adibide zehatzak eta hizkuntza arrunta erabiliz, gidak eta gida horrek Interneten duen web-orriak Kontsumo iraunkorarekin zerikusia duten kontzeptuak eta egintzak eskaintzen dituzte.

Gidak kultura zein geografia faktoreak eta belaunaldien arteko faktoreak erakusten ditu. YOUTHxCHANGE liburuak honako hauen artean dagoen zuzeneko lotura nabarmentzen du bereziki: KI eta bizi-kalitatea, baliabideen (giza eta natur baliabideak) erabilera eraginkorra, zaborraren murrizketa eta hainbat alderdi etiko, hala nola haurren lana, animalianganako ankerkeria, bidezko merkataritza, eta berdintasuna, oro har.

Ekimen hori hirialdeetako gazteei bideratuta dago, informazio-bideak eskuratzeko aukera duten eta antzeko kontsumo-patroiak dituzten gazteei, hain zuzen ere. Baina *Internet* erabiltzeko aukera duen edonork har dezake parte proiektu horretan.

www.youthxchange.net

Gidan, YxC guneko hainbat orrialdeekiko lotura garrantzitsuak daude. Azken kapituluan, *atalez ataleko* deskribapen bat ageri da, eta Interneteko orrialdearen nondik norako interaktiboa eta orrialdeak duen ahalmen hezigarria nabarmentzen dira.

Zer egiten dugu Euskadin?

Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Zuzendaritzak argi ikusi du gazteen prestakuntza, informazioa eta hezkuntza sustatu beharra, kontsumoaren esparruan kritikoagoa, konprometituagoa eta solidarioagoa izango den gizartea lortzeko. Xede horri heltzeko, gazteentzako honako bi prestakuntza-programa hauek jarri ditu abian:

- 14 urte arteko ikasleentzako tailer ibiltariak, ikastetxeetan. Tailer

horietan, ikasleek elkarlanean jarduten dute ikastetxeetako guraso eta irakasleekin.

- Kontsumo Eskola, kontsumoko prestakuntza-zentro iraunkorra, bigarren mailako ikasleentzat eta helduentzat oro har.

Honako orri honetan informazio gehiago aurkituko duzu: www.kontsumo.net/formacion



Bizimodu iraunkorrago baten alde

"Kontsumitzaileek gero eta interes handiagoa dute erosten dituzten produktuen atzean zer dagoen jakiteko. Prezioaz eta kalitateaz gain, produktua nola, non eta nork egiten duen jakin nahi dute."

[Klaus Töpfer,
PNUMAren Zuzendari
Exekutiboa]

Lurreko bizi-elikagaiak deuseztatzen eta lurra antzutzen duten produktuak.

Gainera, aurreko urtean baino hektarea bat gehiago behar dugu urtero.

"Aztarna ekologikoa" zera kalkulatzeko erabiltzen den adierazlea da: pertsona, hiri, eskualde edo herrialde bakoitzak kontsumitzen ditugun baliabide guztiak (ura, energia, materialak, elikagaiak...) lortzeko ekologikoki emankorra den lurzoru-azalera eta sortzen diren hondakinak (zaborra, CO₂-ren emisioak...) asimilatzeke behar den lekua.

Zehazki, zer da iraunkortasuna *GURETZAT*, gizabanakoak garen heinean? Zer egin dezakegu *arduratsuagoak* izateko? Gauza bera egin behar ote dugu denok? Zer egin behar dugu lehenago: gure ingurunea zaindu ala pobrezia ezabatu? Zer lehenetsi behar dugu: gure osasuna ala Lurrarena? Inoiz ez da erraza izaten galdera zailei erantzun egokia ematea – halaxe zioten, bai, antzinakoek!

KIri buruzko gaiaren bilakaera etengabea da, eta erantzunak oso gutxitan izaten dira biribilak, hau da, zuri ala beltz. Hala ere, badira hainbat oinarritzko elementu, gaiari oro har heltzeko erabili daitezkeenak. Ondoren, aurre egin behar diegun *gai* eta *erronkei* buruzko ikuspegi orokorra azalduko dugu.

Egungo kontsumo-patroiei eusten badiegu, etorkizuna ez da oso itxaropentsua izango. Gaur egun egin diren kalkuluen arabera, gure planetak lur-azalera handia galtzen du urtero –*Irlandaren halako azalera*, hain zuzen ere—, lurra gehiegi ustiatzeagatik eta deforestazioagatik. Noiz arte jarraitu ahal izango dugu horrela?

Zenbat eta gehiago kaltetu gure ingurunea, gero eta arrisku handiagoa dugu, eta arrisku handiagoa izango dute etorkizuneko belaunaldiek. Planetaren osasuna gure osasuna da. 50 landare-espezie desagertzen dira egunero. Beraz, zenbat desagertzen dira astean, hilean, edo urtean? Zientzialarien ustez, landareak funtsezkoak dira gaixotasun ugarirentzako sendabidea aurkitzeko. Hortaz, *espezie bat galtzen denean*, ekosistemari konpondu ezinezko kaltea eragiteaz gain, etorkizunean garatzeko *aukera bat galtzen* dugu.

Basa Bizitzarako Munduko Fondoaren (ingelesez, WWF) datuek erakusten dute munduko herritar arrunt batek 2,3 hektarea behar dituela urtean kontsumitzen duena ekoizteko eta sortzen dituen hondakinak uzteko (hektarea bat futbol-zelai baten azalaren baliokidea da). *Jasan daitekeena baino % 40 gehiago da hori.*



Zein da Euskadiko Aztarna Ekologikoa?

Euskal Autonomia Erkidegoko Aztarna Ekologikoa 2,5 planeta da. Horren arabera, planetako biztanle guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren kontsumo-ohiturak izango balituzte, planetaren azalera oraingoaren halako 2,5 beharko luke. Zenbait aldagaik zeresan handia dute gure Aztarna Ekologikoa zehazterakoan; besteak beste, mugikortasunak, etxeko erabilerako energiaren kontsumoak, lurzoruen okupazioak eta elikadurak.

Azpimarratzekoa da jarduera xume batzuk egitea soilik laguntza handikoa izan daitekeela gure defizit ekologikoa murrizteko. Esaterako, garraio publikoa erabiltzea, hiri trinkoetan bizitzea, bilgarri gutxiago dituzten produktuak kontsumitzea, zaborra birziklatzea, eta, etxetresna elektrikoak erosterakoan, eraginkortasun energetikoari buruzko etiketak kontuan hartzea.



Etorkizunerako lehenetsunak...

- **Oinarrizko hezkuntza guztiontzat:** 6 mila milioi dolar; aldiz, munduan kosmetikoetan 15 mila milioi dolar gastatzen dituzte.
- **Ura eta saneamendua guztiontzat:** 10 mila milioi dolar; aldiz, aldiz 14 mila milioi gastatzen dira itsas bidaietan.
- **Oinarrizko osasuna eta elikadura guztiontzat:** 19 mila milioi dolar; Europan eta Estatu Batuetan, aldiz, 17 mila milioi dolar bideratzen dituzte maskotentzako janaria erosteko.
- **Ugalketaren inguruko osasuna emakume guztiontzat:** 112 mila milioi dolar; Europan eta Ameriketako Estatu Batuetan, aldiz, 18 mila milioi dolar kontsumitzen dituzte makilajetan.
- **Ume guztientzako txertoak eta medikuntza kontrola:** 1,3 mila milioi dolar, aldizozkien salmentan 11 mila milioi gastatzen dira.

Iturriak: Estate of the world 2004-www.worldwatch.org/pubs/sow/2004

Zure aztarna ekologikoari buruz gehiago jakiteko: www.earthday.net/Footprint/pdf/ef_spanish_color.pdf. Hiri, herrialde edo lurralde batzuetan, ingurumenarekin duten harremanaren adierazle gisa erabiltzen dute aztarna ekologikoa. Adibidez, Espainian, Nafarroako Foru Erkidegoak bere aztarna ekologikoa neurtu du. Neurketa horren emaitzak honako helbide honetan dituzu eskuragarri: www.cfnavarra.es/medioambiente/agenda/Huella/EcoNav.htm Zure aztarna ekologikoa neurtu nahi baduzu, honako helbide honetan egin ahal izango duzu: www.vidasostenible.com

Erantzukizun bera al dugu denok? Ez, horixe. Europakoa bazara aipaturiko azaleraren bikoitza behar duzu; estatubatuarra bazara, 25 aldiz gehiago. Eta Bangladesh-ekoa bazara, heren bat baino ez. Horrek argi eta garbi adierazten digu kontsumoaren banaketa nabarmen *desorekatuta* dagoela.

Munduko aberatsenen % 20k planetako natur baliabideen ia % 75 kontsumitzen dute. Hona hemen hausnarketarako zenbait datu: Ameriketako Estatu Batuetan planetako biztanleen % 6 bizi dira, baina, harrigarria bada ere, baliabideen % 30 kontsumitzen dute.

Munduko 225 *gizabanako aberatsenen* dirutza munduko biztanle pobreenen % 47ren diru-sarreraren adinakoa da, hau da, 2.500 milioi lagunren diru-iturrien adinakoa.

Eta banaketaz ari garenez, gazte askok uste dute planetak ez duela biztanleria elikatzeko adina ekoizten. *Akats larria*. Elikagaien banaketa desberdina da gaur egun munduan 800 milioi lagun elikatu gabe egotearen arrazoi nagusia.

Desoreka horren arrazoiak alde batera utzita.

Aldiz, Britainia Handian 2000n argitaraturiko txosten batek honako datu krudel hauek eman zituen aditzera: urtero 400 bat milioi libera esterlinaren (571 bat milioi dolar) elikagaiak *xahutzen dira* zabortegietara botata edo errausketa-plantetan erreta! Era berean, Estatu Batuetako gobernuak egin berri duen azterlan batek aditzera eman zuen herrialde hartan ekoizten dituzten elikagaien laurdena baino gehiago ez dituztela kontsumitzen.

John Vidal: "Scandal of the food Britain throws away" (Britainia Handiak xahutzen dituen elikagaien buruzko eskandalua), *The Guardian*, 2000ko apirilaren 4a. Eta horrez gain, kontuan izan behar dugu elikagai horiek deuseztatzearen kostua: 50 milioi libera esterlina gutxi gorabehera (82 milioi dolar inguru urtean).

Laburbilduz, gertakari hauek *Kontsumo Iraunkorra* ingurumen gai bat soilik ez dela erakusten dute; aldiz, gizaki guztiontzat bizi kalitate duina *bultzatzea* du helburu.

Kalkulatu zure Aztarna Ekologikoa!

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, IHOBE, SA Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez, argitalpen bat plazaratu du, ingurumen-inpaktuko

adierazle hori zehatz-mehatz azaltzeko. www.ihobe.net orrien bitartez, argitalpenaren PDF formatua eskura dezakezu.



Zaindu zeure burua

"Ez dago arnasten dugu airea baino gauza garrantzitsuagorik, airea beroa ala hotza izan, arnasten duena belatza ala gizakia izanik ere."

[Jack Nicholson, aktorea]

Behien Entzefalopatia Spongiformea terminoaren ingelesezko siglak.

Genetikoki Eraldatutako Organismoak (GEO): "transgenikoak" ere deitzen zaie; produktu horien erabilerari buruzko eztabaida sortu da gaur egun. Kontzientziatuta dauden kontsumitzaileek zuhertasun-printzipioa erabili beharko lukete, hau da, ez lukete utzi behar GEOen erabileraren ondorioak euren gorputzean "esperimentatzen". Informazio gehiagorako: www.foodbiotech.org

Jakina, alde zurretik, horren ondorioei buruzko ikerketa sakona egin behar da informazio fidagarria emateko moduan egoteko.

Kontsumitzaileen presioa. Britainia Handiko CO-OP supermerkatuen kateak 20tik gora plagizidaren erabilera debekatu du. Plagizida horiek guztiak elikagaien ekoizpenean erabiltzen dira. Konpainiak adierazitakoaren arabera, konpainiak egin zuen inkesta batean kontsumitzaileek eginiko presioaren ondorioz ezarri dute debeku hori. Elkarrizketatu zituzten 1.000 lagunen % 70ek esan zuten kezkatuta daudela plagizidaren erabilera dela-eta (batez ere, hondakin kimikoak osasunean eta ingurumenean duten eragina dela-eta).

Iturria: http://news.bbc.co.uk/1/hi/English/health/newsid_1417000/1417663.stm

Osasuna aberastasuna da, esaera zahar baten arabera. Gero eta jende gehiagok egiten du bizimodu osasungarriagoen aldeko hautua. Nor bere osasunaz kezkatzea planetaren osasunaz kezkatzea ere bada. Bizimoduz aldatzeak planetari ez ezik zeuri ere egin behar dizu mesede.

Geu eta planetaren arteko funtsezko lotura dira *elikagaiak*. Jende asko dagoeneko nahiago ditu elikagai osasungarriagoak, ingurumenari ahalik eta kalte txikiena eraginez eta animaliei tratu duina emanez egindakoak. Gainera, erosten dituen elikagaiak *seguruak* izatea eta ezusteko desatsegini ez ematea nahi du jendeak.

Duela gutxi elikagaiekin loturik izan diren krisialdi batzuen eraginez —behi eroen gaixotasuna (BSE), sukar aftosoa, dioxinak dituzten oilaskoak—, *aukera ziurtatu* iraunkorren aldeko interes aktiboa piztu zaie kontsumitzaileei (organikoak, modu tradizionalan ekoiztutakoak, genetikoki eraldatutako organismoak [GEO] gabeak).

Elikagaiak xahutzea saihesten duten denden alde egiten hasi dira kontsumitzaileak. Era berean, gero eta informazio gehiago eskatzen dute supermerkatuko apaletan dagoenari buruz —transgenikorik al du tomate-poto honek? Erosi nahi dudun haragiari hormonak injektatu al dizkiote?— *Aukeratu ahal izatea* da kontua. Baliteke batzuei axola ez izatea eurek jaten dituzten elikagaiek GEOrik duten ala ez, baina garrantzitsuena zera da, informazio egokia ematea, jendeak bere erabaki propioak hartzeko aukera izan dezan.



Nekazaritza ekologikoa Euskadin

Nekazaritza ekologikoa produkzio-sistema bat da, eta kalitate handieneko elikagai osasungarriak lortzea du helburu nagusizat. Horretarako, baina, Ingurumena errespetatu behar da, baita lurraren emankortasuna zaindu ere, natura-baliabideak ahalik eta ondoen erabiliz, sintesi-produktu kimikoak baztertuz, eta garapen iraunkorra bermatuz. (Iturria: Ekonekazaritza - Nekazaritza Ekologikoaren Euskadiko Federazioa).

Eusko Jaurlaritzaren 229/1996 Dekretuak arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ekologikoa. Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriadako Zuzendaritzak, berriz, kontrol-eginkizunen ardura hartzen du bere gain,

operadoreek Europako 2092/91 Arautegia betetzen ote duten ikuskatzeko, eta, hala badagokio, nekazaritza-produktu ekologikoen zigilu identifikagarriaren erabilera bermatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan 155 operadore ekologiko inguru erregistratu dira, eta produktu gehienak baserriari lotutako ustiategi txikiaren tipologian biltzen dira. 1996an, Euskal Autonomia Erkidegoko 165,20 hektareatan produzitzen zen nekazaritza ekologikoa. 2004. urtean, aldiz, 909,26 hektareatan.

Informazio gehiago: www.euskadi.net, <http://www.ekonekazaritza.org/ae.asp> (Nekazaritza Ekologikoaren Euskadiko Federazioa) eta www.nasdap.ejgv.euskadi.net.

😊 Urratsez urrats

Ahal duzun guztietan, kontsumi itzazu ahalik eta edari nahiz elikagai osasungarrienak: **elikagai fresko** gehiago, eta gehigarri eta **elikagai prozesatu** gutxiago.

- ▶ Ez ezazu har genetikoki eraldatutako elikagairik (GEO), zein ondorio duten ezagutzen den arte.
- ▶ Saia zaitetz hazkuntza intentsiboaren bitartez ekoizturiko haragirik ez kontsumitzen.
- ▶ Ez ezazu jan **garaitik kanpoko** elikagairik, ez eta **urrutiko** herrialdeetatik ekarritakorik ere.
- ▶ Jakinarazi zure supermerkatuan kontsumitzen dituzun elikagaiei buruz benetako informazioa ematen duten **etiketak** nahi dituzula.
- ▶ Behar dituzunean baino ez hartu **gehigarri** dietetikoak. **Osagai naturalez** eginikoak aukeratu, imitazio kimikoen orde.
- ▶ Informa zaitetz elikagaiei kolore eta zapora artifiziala emateko erabiltzen diren **"E"** gehi **zenbaki** bat duten elikagai-gehigarriei buruz.

Elikagai organikoak jatea edo barazkijalea izatea jendeak nahi duen bizimoduaren arabera hartzen dituen erabakiak dira; askotan, osasuntsuago egon nahi dutelako hartzen dituzte erabaki horiek. Hala ere, ingurumenerako ere onak dira erabakiok. Abelburuen haragiaren orde, oilaskoa janez ingurumenari egiten zaion kaltea 15 aldiz txikiagoa da. Haragirik jaten ez duen pertsona batek urtean 4.000 m² zuhaitzi baino gehiago suntsitzea saihesten du.

"Transgenikorik" (GEO) ez dutela ziurtatu ezin duten produktuak zeintzuk diren jakin nahi baduzu, kontsulta ezazu: www.greenpeace.org/espana_es/campaigns/intro?campaign_id=135636

Sustainable Agriculture Food eta Environment Alliance

erakundeek elikagaien "miliak" kontrolatzeko kanpaina bati ekin diote. Elikagaien milien ("food miles") bitartez, elikagaiek azkenean kontsumitzen dituen arenganaino iristeko eginiko ibilbidea neurtzen da. Distantzia hori zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa da elikagaien iraunkortasuna. Informazio gehiago lortzeko, honako orri honetara jo: www.sustainweb.org/foodmiles

Batez ere, ez itzazu honako hauek kontsumitu: E100etik E180ra bitarteko koloratzaileak, E220 sulfurodioxidoak, E320 eta E321 antioxidatzaileak, eta E621 glutamato monosodikoa. Zenbaki horiei buruz gehiago jakiteko, sar zaitetz honako orri honetan: www.consumaseguridad.com; www.sinfronteras.org/naturalmente/



youthxchange.net/respecting-our-bodies

Zer egiten dute gure ikastetxeek?

Bizkaiko Santurtziko Serantes Ikastetxe Publikoak proiektu pilotu bat jarri du abian 15 egunez Bizkaian, bertako ikasle eta irakasleei menu ekologiko bat —"ekomenua" izenekoa— eskaini baitie. Aukeratutako berdurek, heldutasun-punturik onenean soilik biltzen diren frutek, sasoiko produktuek eta intsektiziden berri ez duten barazkiek osatzen dute, besteak beste, menu

berri horren oinarria, osasunaren eta mundu iraunkor baten aldeko hezkuntza sustatzeko helburuarekin. Esperientzia oso positibotzat jo dute, eta, horrenbestez, aurrerantzean menu hori ikastetxeko jangelan behin betiko ezartzeko aukera ere planteatu da.

Iturria: DEIA eta EL CORREO egunkariak (2005/03/01)



Substantzia kimikoak: produktu kaltegarrienen arteko dozena

bat desagertzeko zorian

Kutsatzaile organiko iraunkorren (POP siglak ingelesez) emisioak saihestea xede zuen nazioarteko itun bat lortzeko eztabaidak emaitza onez bukatu ziren 2001eko maiatzean. 120 bat gobernutako ordezkariak berretsi zuten "Kutsatzaile organiko iraunkorrei" (KOI) buruzko Stockholm-eko Ituna. Itun horretan horrelako kutsatzaileak kentzea aurreikusten dela-eta, lehentasunezko 12 substantzien zerrenda egin zen, "**dozena zikina**", alegia. Zerrenda horretan, kendu beharreko honako substantzia hauek daude barne hartuta: DDTa, binefilo polikloratuak (PCB siglak ingelesez) eta dioxinak. Ituna indarrean dago 2004ko maiatzatik www.pops.int

Erabiltzen ditugun produktu kimiko toxikoak eta arriskutsuak ezagutzeko, eta produktu horiek eragiten dituzten arriskuak ezagutzeko, honako helbide honetan kontsulta dezakegu: <http://archivo.greenpeace.org/toxicos/html/chemicalhouse.html>. Era berean, kontsumitzen ditugun produktuen eragina ikusi ahal izango dugu, etxe birtual batean sartuta: www.chemical-cocktail.org

Pestizideei buruz informazio gehiago izateko: www.ceit.es/Asignaturas/Ecologia/Hipertexto/09ProdQui/110Pestic.htm
Pestizida organikoei buruz argibide gehiago izateko: www.planetaorganico.com.br/agrohist2.htm; www.informanic.com



Urratsez urrats

Substantzia kimikoen erabilera murrizteko honako urrats txiki hauek egin ditzakegu:

- ▶ Informa zaitez etxea garbitzeko produktuei, kosmetikoei eta norberaren higienarako produktuei buruz. Azter ezazu zein osagai duten eta nolako eragina duten ingurumenean.
- ▶ Begiratu sendagaiak gordetzen dituzun armairuan eta eraman itzazu kontsumitzeko epea beteta dutenak farmaziara. Behar ez dituzun sendagai erabilgarriak, ordea, behar dituztenentzat jasotzen dituen farmazia batera eraman.
- ▶ Ahal duzun guztietan, erabil itzazu produktu **ekologikoak**, produktu naturalak, eta gutxieneko kopurua erabili (oro har, gomendatzen dutena baino gutxiago).
- ▶ Ez erabili animalien frogaturiko produkturik. Sahiats ezazu **animalien ankerkeria**.
- ▶ Pestizidarik erabili behar baduzu, erabil itzazu kalte txikiena eragiten dutenak.
- ▶ Ondo pentsatu zein maiztasunez garbitu behar duzun **arropa**. Ez ezazu arropa **lehorrean** garbitu; izan ere, horretarako erabiltzen diren produktuek substantzia kimiko oso kutsakorak izaten dituzte askotan.
- ▶ Sendagilearengana joaten zarenean, galde iezaiozu beti ea zure gaitza sendatzeko eraginkorrek diren sendagaien artean leunena agindu dizun.

Nola hezten ditugu euskal gazteak?

Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Zuzendaritzak elikadurari buruzko tailerrak egiten ditu haur, gazte eta helduentzat, "Tailer Ibiltariak" eta "Kontsumo Eskola" programen bitartez. Tailer horietan elikagai multzo guztien berri ematen zaie ikasleei, eta dieta orekatu eta osasungarriak gure osasunerako duen garrantzia irakasten zaie, baita horrekiko kontzientziatu ere. Gainera, "Elikadura eta nutrizioa" gaia lantzeko material didaktikoa (CDa)

argitaratu du. Material horrek ikuspegi globala eskaintzen du elikadurari eta nutrizioari buruz, sekuentzian banatua. Gauza jakina da elikaduraren gaiak eragina duela kontsumitzaileengan, eta horregatik materialak lan-tresna baliagarria izan nahi du elikadurari buruzko jarduera eta ekimen berriak garatzeko.

Informazio gehiago honako orri honetan: www.kontsumo.net/formacion

Gure etxeak garbitzeko eta gure higienarako erabili ohi ditugun produktuekin ere badu zerikusia osasuna zaintzeak. Produktu horietako askok dituzten *substantzia kimikoek* oraingo kutsadura maila altua areagotzen dute eta ez dira biodegradagarriak.

Substantzia kimiko arriskutsuak arnasten dugun airean ere badaude. 2007. urterako, historian lehen aldiz, jende gehiago bizi izango da herri eta hirietan landan baino. Zoritxarrez, airearen kutsadura da hiriko bizimoduaren ezaugarrietako bat. *Airearen kalitate txarrak* eragin kaltegarria du munduko biztanleen osasunean, nola herrialde garatueta biztanleen osasunean, hala garapen-bidean dauden biztanleenean.

Atmosferaren kutsaduraren eraginez, nabarmen areagotu da hirietan *asma* eta *alergiak* dituzten biztanleen kopurua. Muturreko kasuetan, kutsadura maila altua denean, etxean geratzea da aukera bakarra asmak jota daudenentzat.



Urratsez urrats

Denok egin dezakegu arnasten dugun gure osasunaren alde:

- ▶ Distantzia laburretan, **oinez** joan, autoa erabili ordez.
- ▶ **Utzi erretzeari**, edo, behintzat murriztu zigarro-kopurua.
- ▶ Gogoratu ariketa maiz samar egitea. **Egoera fisiko ona** ezin da metatu.



Europako Kontseiluaren 1999ko apirilaren 22ko 1999/30/EB Artzataraua; artzatarau horrek ezartzen ditu ingurugiroko aireak gehienez eduki behar dituen *sufre-dioxidoaren, nitrogeno-dioxidoaren, nitrogeno-oxidoen eta partikulen kopuruak*. Honako honetan dago eskuragarri: <http://europa.eu.int/scadplus/leg/es/lvb/l28031a.htm>

Airearen **kutsadurak** hirietan bizi direnen osasunean duen **eragina** izugarria da: Londresen izaten diren 50 bihotzekotik bat horrek eraginda izaten da. Indiako hiri nagusietan, New Delhi-n eta Bombay-n, alegia, airea arnastea 10-20 zigarro erretzearen baliokidea da, eta New Delhin 7.500 lagun hitzen dira urtero arnasa-gaixotasunen eraginez. Mexiko hiriak ia 20 milioi biztanle ditu; bertan, gero eta egoera txarragoan dago atmosfera. Inguru metropolitarran, 3 milioi ibilgailu motordunek eta 30.000 industrietatik emitturiko kutsatzaileen nahasteak eragindako smog edo ke-lainoak honako substantzia hauek ditu: karbono-monoxidoa, beruna, hidrokarburoak, sufredioxidoa, nitrogeno-dioxidoa eta partikula esekiak. Dituen ezaugarri geografikoen eraginez (altitudea, latitudea, klimatologia...), eguerdian, konposatu horiek ozono bihurtzen dira. Smog hori ezin da sakabanatu, hiria mendiz inguratuta baitago, eta horrek tenperatura-inbertsioak deiturikoak baldintzatzen ditu. Inbertsio horiek egunero gertatzen dira urritik urtarilerara bitartean. 1998an, Mexiko Hirian, ozono mailak 233 egunetan gainditu zituen IMECAren (Airearen Kalitatearen Adierazle Metropolitarra) 100 puntuak; agintarien arabera, maila horretatik gora, kutsatzaile hori osasunerako kaltegarria bihurtzen da; 1989an, 332 egun kaltegarri izan ziren; 1991, berriz, 354, eta 1995ean, urteko 365 egunetan gertatu zen. Espainiari dagokionez, Europako Batzordeak 2001ean eginiko Urteko Txostenaren arabera, Zaragozan eta Bartzelonako zein Madrilgo inguru metropolitarran, nitrogeno-dioxidoaren kontzentrazioak altuagoak ziren tolerantzia-marjinak areagoturiko gehieneko balioa baino. PM10 partikulen (10 µm-tik beherako partikula esekiak) kontzentrazioek tolerantzia-marjinak areagoturiko gehieneko balioa gainditzen zuten hainbat zonaldeetan, besteak beste Bartzelonan.



Hirian barrena mugitzen

"Garraioa da hiri bat iraunkorra bihurtuko duena edo hiriaren iraunkortasuna hautsiko duena."

[Richard Rogers, arkitektoa]

Ekimen eta erakunde ugari bultzatzen dute bizikleta gure hirietako garraio bide alternatibo gisa. Horri buruzko informazioa jasotzeko, bila itzazu sarean haien web-orriak; adibidez: www.conbici.org



Euskadin autoa konpartitzea

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batzuetan (Bilbon, Arrasaten eta Getxon, esaterako) autoa konpartitzeko ekimenak jarri dira abian. Hain zuzen ere, ibilgailu pribatua konpartitzeko ekimen hori lanera, unibertsitatera eta abarrera joateko baliatzen ari da herri horietan, baita oporretara joateko ere. Horrelako proiektuen bitartez, topaketa erraztu nahi da elkarrekin bide berdina egiteko ibilgailu pribatua konpartitzeko interesa duten lagunen artean, hartara ibilgailu pribatuaren erabilera eraginkorragoa eta ingurumenarekiko errespetagarriagoa egiteko. Bilboren kasuan, 28.000 lagunek egin dute bat programarekin ekimena abian jarri zenetik.

www.compartir.org web-orrian Espainiako hainbat udalerritan autoa konpartitzeko abian jarritako ekimenak kontsulta daitezke.

Euskal Autonomia Erkidegoan, udalen ez ezik zenbait Enpresa Parke abian jarritako ekimenak ere aipatu behar dira. Hain zuzen ere, ibilgailu pribatuaren erabilera arduratsua eta konpartitua bultzatzea dute helburutzat ekimen horiek guztiek, horien ingurumen-inpaktua txikitzeko.

Informazio gehiago www.zuatzuparkea.com web-orrian

Bicitekas bizikletaren kultura bizimodu gisa bultzatzen duen Mexikoko herritar-talde bat da. Talde horrek zera du xede: gizakiaren bizitzarako eta garapen osorako ingurumen egokia sortzea. Garraio bide iraunkorrak erabiltzearen eta sustatzearen alde egiten dute. Pertsonen ordez, automobila hiriko elementurik garrantzitsuentzat hartzen duen hiri-garapenaren aurka daude. Mexikoko zirkulazio-araudian aldaketak bultzatzen dituzte, bidegorriak egitea proposatzen dute, segurtasunez zirkulatzeko aholkuak ematen dituzte, eta pertsona guztiek zirkulatzeko eta edonora joateko, bizikleta segurtasunez eta askatasunez erabiltzeko eskubidea dutela zabaltzeko kanpainak egiten dituzte²⁴. Bicitekas taldeari eta horren jardueri buruzko informazio gehiago, honako helbide honetan: www.bicitekas.org

Mugikortasuna giza jardueraren funtsezko alderdia izan da beti, bai eta etengabe aldatzen eta hobetzen ari den faktore bat ere. Mendeetan zehar, ikusi dugu garraio bideak biderkatu egin direla, garraio bideen tamaina eta indarra, eta, jakina, abiadura, areagotu egin dela.

Munduko Bankuaren kopuruei jarraiki, 2010. urtean 816 milioi automobil egongo da munduan (2003. urtean, aldiz, 700 milioi zeuden). Proiekzioak alde batera utzi, eta datu errealei heltzen badiegu, 2000. urtean automobilen produkzioak zifra errekorra lortu zuen: 40,9 milioi ale; aurreko urteari dagokionez, % 4 igo zen. Autoen produkzioari erritmo horretan eusten badiogu, litekeena da espero baino lehenago iristea 2010. urterako proiektiora!

Eta, zer egiten dugu Euskadin?

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batzuetan Mugikortasun Iraunkorreko Udal Planak jartzen ari dira abian, pixkana-pixkana natura-baliabide gutxiago kontsumituko dituzten eta ondorioz ingurumenari kalte txikiagoak eragingo dizkioten garraio bide iraunkorrak ezartze aldera. Gaur egun, Euskadiko 44 udalerririk eta 4 eskualdek lanean dihardute mugikortasun iraunkorreko planak garatzen, Tokiko

Agenda 21 planaren esparruan. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, IHOBE, SA Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez, "Mugikortasun Iraunkorreko Udal Planak egiteko Gida Praktiko" argitaratu du, ingurumen-arloko administrari eta teknikariei plan horiek idazteko eta lantzeko erraztasunak emate aldera.

Gida hori www.ihobe.net



[youthxchange.net/
clean-up-your-fun](http://youthxchange.net/clean-up-your-fun)

Munduko biztanleen % 20ak munduko autoen % 80aren jabea da, batez ere herrialde aberatsetako biztanleena. Ameriketako Estatu Batuetako hiri-inguru bakarrean —Los Angeleseko inguru metropolitarran— auto gehiago daude Indiako, Txinako, Indonesiako, Pakistango eta Bangladesheko auto guztien batura baino.

Arazo gehigarriak: karbono-monoxidoko emisioak larri kutsatzen ari dira hiriak, eta kaleetan leku liberrik ere ez dago trafiko-bolumen handia dela-eta. Kalkuluen arabera, Bangokeko gidariek 44 egun ematen dituzte zirkulazio-ilaretan.

Autoek eta kamioiek 515 milioi tona CO₂ emititu zituzten Estatu Batuetan 2000an; kopuru hori munduko herrialde gehien artean isuritako kopurua baino handiagoa da. Bestalde, erregai tradizionalen —adibidez, gasolina— hornidura ez da agortezina.

Autoarekiko dugun mendekotasunak *nagi* bihurtu gaitu. Hiri handietan, 8 kilometrotik beherako 3 bidaiatik 1 autoz egiten da. Jakina, ibilgailu motorizatuak ere ezinbestekoak dira bizimodu modernoan. Baina autoa modu arduratsuagoan erabiltzeak gauzak hobeto ditzake, eta hiriak garbiagoak, osasungarriagoak eta bizitzeko seguruagoak bihurtu ditzake. Bidaia motzek kutsadura maila areagotzen dute: autoz eginiko 5 kilometroko bidaia batek autobus bateko bidaiari bakoitzeko emititzen den karbono-dioxidoaren halako 10 emititzen ditu, eta tren bateko bidaiari batek emititzen duenaren halako 25.



Urratsez urrats

Zirkulazioa, airearen kutsadura, zarata... gure hirietan gero eta latzagoa da bizitzea. Zer egin dezakegu?

- ▶ **Ibil zaitez oinez, erabil itzazu bizikleta edo patinak.** Bizikleta garraibide eraginkorrena da, energiaren erabilerrari dagokionez: erabiliriko energiaren % 80 mugimendu bihurtzen da. Azkarra da eta sasoiari mantenduko zara!
- ▶ **Konpartituz autoa** ahal duzun guztietan. Autoa konpartitzeak (*car-sharing*) hainbat laguni auto bakarra erabiltzeko aukera ematen dio. *Car-pooling* sistemak, talde bat antolatuz egiten da denen artean auto bat edo gehiago konpartitzeko. Bi aukerak balio dute zirkulazioa murrizteko, gasolina aurrezteko, eta kutsadura zein bidaiari bakoitzak erabiliriko energia eta autoa izateagatik kostuak murrizteko.
- ▶ Alternatiba gisa, autoa noizean behin baino behar ez baduzu, hobe da **alokatzea** erostea baino.
- ▶ **Garraio publikoa.** Oro har, trenak eta garraio publikoko autobusak dira aukera iraunkorrenak; izan ere, lagun-kopuru handiagoa garraiatzen dute, gutxiago kutsatzen dute eta energia gutxiago erabiltzen dute bidaiari bakoitzeko.
- ▶ Eros itzazu **ibilgailu eraginkorrak** eta **manten itzazu** modu egokian. Erosi baino lehen, azter ezazu nolako energia-eraginkortasuna duen autoak edo motozikletak, bai eta berunik gabeko gasolinaz funtzionatzen duen eta batez beste nolako iraupena izan dezakeen.
- ▶ **Gida ezazu arduraz.** Ez ezazu zakar azeleratu edo balaztatu. Zakar gidatuta askoz ere erregai gehiago kontsumitzen da, eta, beraz, gehiago kutsatzen da. Itzal ezazu motorra 30 segundotik gora itxaron behar baduzu. Eta ez ezazu gehiegi itxaron abiadura aldatzeko.

Caroline Clayton, Dirty Planet: the Friends of the Earth Guide to pollution and what you can do about it, 2000.

Honako hau ere ikusi: Europako Garraioari buruzko Informazio Zerbitzua. Gauzatzen ari diren garraio-politikei buruzko gida interaktiboa: www.eltis.org Garraio Iraunkorraren Zentroak, Mexiko Hirian dagoenak, oso material baliotsuak eskaintzen ditu problematika honi buruz: www.cts-ceiba.org/index.htm. Ameriketako hiriei buruzko nahikoa informazio dago, bai eta gaiarekin zerikusia duten beste gune batzuetan sartzeko estekak ere.

Reducing Greenhouse Gas Emissions From U.S. Transportation, Pew Center on Global Climate Change, May 2003 www.pewclimate.org

www.iea.org

Ibid. Clayton, op.cit., 16. or. Ibilbide horietan, hain zuzen ere, dute eraginkortasunik urriena auto pribatuak.



Estatu espainoleko Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioako Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren (IDAE/EDAI) web-orrian, honako hauei buruzko informazioa duzu eskuragarri: batetik, merkaturak dauden marken eta ibilgailuen erregai-kontsumoari buruzkoa, eta bestetik, ibilgailu horien emisio kutsatzailei buruzkoa: www.idae.es



[www.unep.fr/en/info/
videos.htm](http://www.unep.fr/en/info/videos.htm)

Bidaian

“Ez dago bidaiaririk Lurra espazio-ontzian. Guztiok gara tripulatzaileak.”

[Marshall McLuhan, soziologoa]



Argibide gehiago izateko:
www.ecotourism.org
www.greenglobe21.com
www.a-tr.org
www.echoway.org
www.tourismefordevelopment.com
www.aventure-ecotourisme.qc.ca
http://www.world-tourism.org/sustainable/esp/ecoturismo/menu.htm
www.tourisme-durable.net

Mundu osoko ekonomia-jardueraren % 10 baino gehiago egiten dute, eta zuzenean edo zeharka, 200 milioi pertsona baino gehiagori ematen diote lana. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, begira itzazu: www.uneptie.org/pc/tourism/sust-tourism, edo http://world-tourism.org, baita www.wttc.org ere.

Mobilizatzea ez dagokie bidaiei soilik. Turismo jendetsuak kalte larriak eragiten ditu ingurumenean. Bidaia luzeak ere barne hartzen ditu, ikasketetako, laneko edo gozameneko bidaia izanik ere. Baina bidaiatzeko moduaren arabera, bidaia guztiak ez dute iraunkortasun maila berdina. Hausnarketarako zenbait ideia...

Turismoak eragin handia du gure planetan, eta munduko industriarik handiena da. Turismoaren Munduko Erakundearen arabera, 2020. urtean 1.600 milioi nazioarteko bidaia egingo dira (2003an 694 milioi izan ziren).

Zer eskaintzen die Euskadik bisitariei?

Ekoturismoa edo Turismo Iraunkorra Rio de Janeiroko Garapenari eta Ingurumenari buruzko Deklarazioaren printzipioetan eta Tokiko Agenda 21 programaren gomendioetan oinarritzen da. Bultzatzen duen opor-formulak bisitatutako ingurunea zaintzea bilatzen du, ingurumen- eta kultura-inpaktuak txikituz; baita tokiko ekonomiaren garapena eta tokiko herritarren parte-hartzea sustatzea ere. Ingurune fisikoa eta ingurune gizatiarra bateratu nahi dira, beraz, ingurunean eta ingurune horretan bizi diren herritarrengan ahalik eta inpakturik txikiena eragiteko.

Euskadiren kasuan, landa-turismoaren ekimena jarri da abian, berariazko ezaugarriak dituen kalitatezko turismoa bultzatu eta sustatzeko. Horri esker, gure herrialdeko landa-eremu ugariak

beste diru-iturri bat aurkitu dute, nekazaritza-ustiatzearen osagarri. Euskadi kontraste asko dituen herria da. Batetik, hiriak ditugu, biztanle eta industria askorekin; bestetik, ordea, toki zoragarri ederrak ere aurkitzen ditugu hiri horien inguruetan; zer esanik ez, azken horiek hainbat aukera eskaintzen dizkigute txangoetarako, kirolak egiteko eta atseden hartzeko. Tokiko tradizioak, ondare artistiko eta historikoa, paisaiaren kalitatea eta abar lehen eskutik ezagutzeko aukera ematen die bisitariei landa-turismoak. Eta ingurumenarekiko errespetua ahaztu gabe.

Euskadiko agroturismo eta landa-etxeei buruz informazio gehiago lortzeko, honako web-orri hauetan sar gaitzeko: www.nekatur.net, www.paisvascoturismo.net eta www.ecoturismo.com

Zientzialariek diotenez, 2015. urterako, ozono-geruzaren urteko suntsipenaren erdia aire-bidaiek eragindakoa izango da. *Aire-bidaia* guztiak ez dira turistenak, noski, baina turistek arazoaren larritasuna areagotu egiten dute.

Kostako lurraldeetan, batik bat, airearen kutsadura eta lurzorua eta uraren degradazioa arazo larriak dira, izan ere, kasu askotan neurritz kanpo ustiatzen baitira. Nabarmenagoa den beste kontu bat: zer pentsatu behar dugu toki zoragarriak zabortegi bihurtzen dituzten turista arduragabe horietaz?

Ba al da beste aukerarik? Bai. Gaur egun, bidaia eta opor iraunkorren aukera gero eta handiagoa da (zaintzeko eta zaharberritzeko proiektuak, boluntarioen laguntza-proiektuak, atzerrian eskolak ematea, etab.) Interneten bilatuz gero, hamaika ideia eta aukera aurkituko dituzu, baina erne! Zenbait pakete ez dira iragartzen dituzten bezain iraunkorrak!

Lasaitasuna nahi al duzu? Ez dago arazorik. Ohiko opor-moduak ere iraunkorrak izan daitezke. Tokiko jendeak arretaz administratzen dituen tokiko hotelek, ostatuak, landa-etxeek eta kanpinek ekonomia, ingurunea eta tokiko kultura errespetatzen eta bultzatzen dituzte, eta ziurrenik, *nazioarteko* kateetako zenbait hotelek baino gehiago.

Eta horren adierazle positibo bat honako hau da: turismo iraunkor edo etikoak gero eta arrakasta handiagoa izatea. Beheko taulan oporretarako hainbat iradokizun aurkituko dituzu. Zerrenda luzea da, baina bidaiatzen ari garenean, gure ahalegina eta arreta bikoiztu behar ditugu. Helmuga dugun toki hori, kultura ezezagunekoa ez ezik, beste jende baten lekua ere bada, eta guztiok estimatzen ditugu ongi hezitako eta errespetuz jarduten duten kanpotarrak.

UNEP (TOI)-ren Tour Operators ekimena:

Garraio-politika iraunkorragoa aplikatzea da Alemaniako garapen iraunkorren aldeko STUDIOSUS proiektuen ardatza. Hegazkin edo auto bidaien ordez, tren edo autobus bidaiak eskaintzeagatik pizgarriak ematea da hartutako neurrietako bat. Bidaiak egitearen gozamena eta iraunkortasuna bateragarri al dira? Primer Tours-en (Hegoafrika) baietz uste dute. Agentziek diseinatzen dituzten bidaietan, eskainitako tokiak zaintzeko laguntzen duten interesguneak eta ostatuak barne hartzen dituzte.

www.toinitiative.org/good_practices



Urratsez urrats

Turista gisa, gure eragina gutxitzeko hainbat gauza egin ditzakegu, esate baterako...

- ▶ Tokiko herritarrei etekin handienak ematen dizkieten bidaiak hautatu. Txartelak eta oroigarriak erostean, prezio txikiagoak lortzearren tratuan aritzeak esplotazioa sustatu dezake.
- ▶ Balio handiko baliabide naturalean aurreztu. Ez itzazu alferrik gal ez ura, ezta energia ere. Erreketan edo iturrietan ez erabili substantzia kutsatzailerik, detergenteak esaterako.
- ▶ Ez bota zaborra; bidean topatzen baduzu, jaso ezazu, eta behar den tokian utzi.
- ▶ Biodegradagarriak ez diren hondakinak bereiz itzazu, eta gaikako bilketetan parte hartu.
- ▶ Landareei euren ingurune naturalean hazten utzi behar diegu. Adarrak edo sustraiak moztea eta haziak nahastea legez kanpokoa da munduko toki askotan.
- ▶ Tokiko artisauei eta merkatariei lagundu. Ahal den guztietan, bertan egindako oroigarriak erosi.
- ▶ Lurraren jabetza-eskubideak errespetatu itzazu. Komunitate indigenen lurretan, turistek jabetza pribatu batean bezala jokatu behar dute.
- ▶ Ezagutzera zoazen herrialdeari buruz irakur ezazu; tokiko kultura errespetatzeko eta jendearengana heltzeko lagungarri izango zaizu. Herrialde askotan, arropa lasaia eta arina hobeto onartzen dute estua baino. Horren antzera, jende aurrean musu ematea ere ez dago ongi ikusia kasu askotan.

Hortaz, *American Sierra Club*-ek gomendatzen duenari jarraiki: argazkiak besterik ez eraman!; zure oinatzak bakarrik utzi!

Iturriak: Tourism Concern's (Britainia Handia); Survival International's Code; The Himalayan Tourist Code (Nepal); Ecumenical Coalition of the Tirad World Tourism (Bangkok); Tourism with insight (Alemania); www.sierraclub.org

Korala babestu ala deuseztatu? Norberaren aukera

Koralezko arrezifeak hamaika kostaldetako erakargarri handienak dira. Ingurumena errespetatzearekin batera, ingurune zoragarri horiek ezagutzeko modurik egokienari buruzko informazioa ematen du UNEPek: www.uneptie.org/tourism.



Gutxitu hondakinak



“Kontsumitzen dugun produktu bakoitzak ezkutuko historia bat du, oso antzekoa ia beti, materialetan, baliabideetan eta eraginetan idatzi gabeko inbentario bat, eta horiei guztiei, produktuaren erabilerak eta tratamenduak sortzen dituen hondakinak gehitu behar zaizkie.”

[Paul Hawken, ingurumen-aditua]

http://europa.eu.int/comm/environment/waste/facts_en Europako Batzordeak gazteei zuzendutako web-orri bat sortu du; bertan Europako aireari, urari, hondakinei eta naturaren egoerari buruzko informazio eta datu ugari daitezke. Helbide honetan topatuko duzu: http://europa.eu.int/comm/environment/youth/waste/index_es.html

Azken urteotan, inoiz baino hondakin gehiago sortu ditugu. Batez beste, herrialde garatu batean bizi den lagun bakoitzak kilo bat zabor sortzen du egunean.

Baina batez besteko horrek ez du esan nahi hondakinen sorreran eta tratamenduan antzeko banaketa dagoenik. Europarrek, adibidez, urtean 2.000 milioi tona hondakin sortzen dute. Ia 40 milioi tona arriskutsuak dira. Azkeneko sei urteotan, sortutako hondakin-kopurua % 10 handitu da urtean.

Zalantzarik gabe, joera hori geldiarazi eta leheneratu egin behar dugu, zabor azpian lurperatuta bukatu nahi ez badugu, bederen. Epe luzean, hondakinen sorrera geldiarazteko moduak aurkitu behar ditugu, orain erabakigarriak diren bi oinarritzko arrazoiengatik:

- Hondakin-kopuru **handiagoarekin**, kutsatzeko ahalmen **handiagoa**.
- Berrerabili eta birzikla daitezkeen materialez **osatura** dago zaborra: hondakin gutxiago, diru gehiago!

113 mila milioi katilu, 39 mila milioi mahai-tresna, eta 29 mila milioi plater erabiltzen eta botatzen dira urtean Ameriketako Estatu Batuetan, eta horietatik erdiak plastikozkoak dira. Indian plastikozko hondakinen 4,5 milioi tona sortzen dituzte. Arazo gehien ematen duen materiala polietilenoa da (plastikozko poltsak egiteko erabiltzen den materiala), izan ere, *100 urte behar baititu desagiteko*.

Ba al zenekien Euskadin Jai Iraunkorrek egiten ditugula?

Betizu Jai Berdea horren erakusgarri argia da:

2004ko ekainaren 5ean, “Ingurumenaren Mundu Eguna” zela eta, jai iraunkor bat ospatu zen Euskal Autonomia Erkidegoan lehen aldiz. EITBk antolatu zuen jai, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailarekin batera (azken horrek, IHOBE SA Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez), eta 50.000 haur baino gehiago bildu ziren bertan. Jai iraunkorrako bat lortzeko, antolaketak zenbait iraunkortasun adierazle erabili zituen: jaiaren sortutako hondakinak murriztea, garraio iraunkorreko plan bat egitea, eta ingurumen-hezkuntzako kanpaina bat hedatzea.

Komunikazioko eta ingurumen-hezkuntzako kanpaina baten bitartez, jaiegunean bertaratu beharreko jende gehienak garraio publikoa erabiltzea lortu zen, eta, hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko, 100 edukiontzi baino gehiago erabili ziren. Guztira, 10.000 kilo hiriko hondakin solido bildu ziren. Horietatik 3.000 kilo paperak eta kartoiak ziren, 1.000 kilo beirak eta kristalak, eta 2.500 plastikozkoak eta ontziak. Gainerako zaborrak edukiontzi generikoetan bildu ziren.

Esaterako, **Tokiko Agenda 21** programaren baitan, Gipuzkoako GOIERRIko eskualdeko jaietan eta Donostiako Santo Tomas eguneko

jaietan, plastikozko basoak banatu ziren, behin eta berriz erabiltzeko modukoak, eta horrela nabarmen murriztu zen hondakinen kopurua. Donostian, ia baino 10 tona hondakin gutxiago bildu ziren. Vitoria/Gasteizek, bere aldetik, marka egin zuen, eta zortzi ordutan beste edozein hiriburuk baino beira-kantitate handiagoa bildu zuen; hala, Zeledonon jaitsieraren egunean, Guinness Marken Liburuan sartzea lortu zuen. Horretarako, kanpaina bat antolatu zuten Zeledonon pertsonaia erabiliz, eta 22 edukiontzi jarri zituzten plazaren inguruan. Ondorioa: jendeak 10.720 kilo botila cava eta botila sagardo jaurti zuen edukiontzi horietan.



Plastikoaz libratzen. New Delhiko herritarrena da mundu osoko plastikozko poltsen kontsumo handienetako bat. Indiako armadaren laguntzarekin, Panchavati Mugimendu Berdeak plastikozko poltsak gutxiago erabiltzeko kanpaina bati –“The Quit India Polybag”– ekin dio. Ikasleek euren herriko saltzaileekin eta merkatariekin hitz egiten dute, eta plastikozko poltsek ingurumenean duten eraginaren berri ematen diete. Familietan plastikozko poltsak berrerabiltzea sustatzen da, edo oraindik hobeto, oihalezko poltsak erabiltzea.

Panchavati-ren ahaleginari esker, New Delhiko armadaren kafetegi guztietan plastikozko poltsak erabiltzeari utzi diote. Bestalde, New Delhiko hotel-industrian plastikozko poltsak erabiltzea debekatu dute. New Delhiko Udaltzako bat egin du Panchavati-rekin, eta New Delhi plastikozko poltsarik gabeko gune³⁷ bihurtzeko ahaleginetan ari dira.



[youthxchange.net/
social-belonging](http://youthxchange.net/social-belonging)

[www.unep.org/children_youth/
homepage_files/youth/ind.htm](http://www.unep.org/children_youth/homepage_files/youth/ind.htm)

Ordenagailuak ere, orokorrean Kontsumo Iraunkorrari lagun diezaiokeen tresnatzat hartuagatik, hondakin arriskutsuak sortzen ari dira. Basel Action Network elkartearen esanetan munduan 500 milioi ordenadore daude, hanek suposatzen du 716,7 miloi kilogramo berun, 2,87 miloi kilogramo plastiko eta 286.700 kg. mercurio.

Hondakinen inguruko hausnarketa nola egin dezakegu berriz? *Hasteko, erabili gutxiago!* Bigarren, produktuaren diseinuari begiratu. Hondakinen sorrera gutxitzeko edo saihesteko, produktuak berriz diseinatzea irtenbide bat izan daiteke. Ekodiseinuaren gai konplexu horren inguruan gehiago jakiteko, besteak beste, honako webgune hauek bisita ditzakezu.

10 urtetan munduko ordenadoreen kopurua bider 5 biderkatu da, 1988an 105 milioi ziren eta 2002an milioi erdira baino gehiago izatera heldu zen. www.worldwatch.org/pubs/goodstuff/computers

Ba al zenekien Euskadin autoak deskontaminatzeko tailerrak ditugula?

Botatzeko ibilgailuei buruzko europar arteztarau berriak ibilgailuak botatzea galarazten du, alde zuzenetik horiei tratamendu bat eman gabe. Debekatu da, halaber, automobilak edozein tokitan pilotzea, eta, horiek desegin baino lehen, piezak, likidoak eta gas kutsakorrek kendu beharko zaizkie.

Europako erakunde horrek honako erronka hau ezarri du 2006. urteari begira: ibilgailuetako osagarrien % 85 birziklatzea eta % 5 energia bihurtzea. Legeria berri horrekin lurraren eta

ingurunearen kutsadura saihestu nahi da, baina baita lehengaiak eta energia aurreztu ere. Arteztarau horren arabera, ibilgailuak CAT/TZBetan (Tratamendu Zentro Baimenduak) soilik aurkeztuko dira. Bertan, ibilgailuaren erabiltzaileari “desegiteko ziurtagiri” bat egingo zaio, ibilgailua desegin eta zatitu aurretik deskontaminatuko dela bermatzeko.

Une honetan, Euskal Autonomia Erkidegoan 40 tailer eta enpresa inguru daude TZB gisa sailkatuak.

www.o2org ; www.smartarch.nl ; [www.cfd.rmit.edu.au/dfe/
cfd_2_5](http://www.cfd.rmit.edu.au/dfe/cfd_2_5) ; [www.junres.es/ccr/
reciclatge/disseny](http://www.junres.es/ccr/reciclatge/disseny)

Eusko Jaurlaritzaren **Kontsumo Zuzendaritzak ardurazko erosketei buruzko tailerrak**

egiten ditu haur, gazte eta helduentzat, “tailer ibiltariak” eta “Kontsumo Eskola” programen bitartez hondakinak nola murrizt daitezkeen azaltzeko.

Informazio gehiagorako kontsultatu www.kontsumo.net/formacion web-orria.

Informazio gehiago nahi izanez gero, PNUMAren ekodiseinuari buruzko web-orrian sar zaitezke: www.uneptie.org/pc/sustain/design/design-subpage.htm Horretaz gain, ekodiseinuaren beste hainbat adibide topatuko dituzu argitalpen honetan: "Ecoproductes a la Ilar", Guies d'Educació Ambiental nº 16, 2003, Bartzelona, Ajuntament de Barcelona.

Zer da ekodiseinua?

Produktuaren "ikuspuntua zirkularra" duen diseinua, "jaiotzetik hil arterainokoa" deitzen dena; objektu baten bizi-zikloa kontuan izaten da, sortzetik hasi, erabilerarekin jarraitu, eta hondakin gisako tratamenduarekin (berrerabiltzea, birziklatzea, zabortegian botatzea) amaitzeko. Ekodiseinuaren helburuak honako hauek dira:

- Materialak, energia eta bestelako baliabideak ahalik eta modu eraginkorrenean erabiltzea.
- Arriskuan ez dauden ekosistemetatik ez datozen materialak hautatzea.
- Hondakinak sortzea eta kutsadura saihesteko diseinatzea.
- Material birziklatuak eta/edo birziklagarriak erabiltzea, baita energia aurrezten duten teknologiak ere.
- Produktu baten bizitza optimizatzea: erabiltzeko, zaintzeko, eguneratzeko, berrerabiltzeko, birziklatzeko edo berriz manufacturatzeko erraza izatea.
- iGauzak erraztea! - Ahal den material eta/edo osagai gutxien erabiltzea, erraz zatitzeko eta birziklatzeko aukera ematen duten diseinuekin.
- Garraio-logistika hobetzea.
- Osasunarentzako izan daitezkeen arriskuak saihestea, material seguruak eta ez-toxikoak erabiliz.
- Giza eskubideak errespetatzea, laneko esplotazioa eta haurrek lan egitea saihestuz.

Oro har, ekodiseinuak ez ditu objektuak berriz asmatu nahi. Onartzen da jendeak beti produktu bera nahi ez izatea eta irtenbideak nahi dituela. Esate baterako, ongi diseinatuz gero, garbitegi bat jarrita norberaren garbigailuen beharrik ez litzateke izango.

Ekodiseinuaren xedea honako hau da: lan bat egiteko beste moduak bilatzea, ekologian eragin txikiagoa duena, eraginkortasun berdina (edo handiagoa) izanik. Ekodiseinatzaileen ustez, etika eta estetika ez dira kontrako kontzeptuak, bata bestearen osagarri baizik.



Zer egiten dute gure enpresek Ekodiseinu-arloan?

2003ko ekainean, AENOREk (Espainiako Normalizatzeko eta Ziurtatzeko Elkarteak) UNE 150.301 arau berria argitaratu zuen. Ekimen horren abiapuntua Ekodiseinu-proiektu pilotua da. IHOBE, SA Ingurumen Jarduketako Sozietate Publikoak 1999. eta 2000. urteetan jarri zuen abian proiektu hori Euskadiko lau enprekin elkarlanean. Arau honek lehen aldiz ziurtatzen du produktuak diseinatzerakoan ekodiseinu-metodologia erabili dela. Orobat, diseinu-prozesuan diseinatutako produktuak sorraraz litzakeen ingurumen-inpaktuak kontuan hartu direla

ziurtatzen du, inpaktu horiek txikitzeko. Berriki IHOBEk **Ekodiseinu-proiektua** jarri du abian honako helburu hauekin: enpresaren esku ekodiseinuaren prestakuntza duten beka-dunak jartzea; diagnostiko xume bat egiteko aukera eskaintzea, enpresei produktu batek duen hobetze-ahalmena jakinarazteko; eta UNE 150.301 araua ezartzeko prozesuan zuzenean sartzeko.

Informazio gehiago nahi baduzu, sartu www.ihobe.net web-orrian, edo deitu Ihobe-Line 900 15 08 64 enpresen informaziorako doako zerbitzura.



Munduak aurre egin beharreko erronka garrantzitsuenetako bat honako hau da: *baliabideen kontsumoa* murriztea. Bestela esateko, Lurreko baliabide naturalak (erregai fosilak, ura, gas naturalak edo zuhaitzak) agortu ezinezko iturrietatik datozela pentsatzeari utzi behar diogu. Eta horretan, birziklatzeak berebiziko garrantzia du.

Gure baliabide naturalen hornidura agortu nahi ez badugu, eguneroko bizitzan eta merkataritzan berreskuratzea, *berrerabiltzea eta birziklatzea* ohiko jokabide egin behar ditugu. Hori eginez gero, honako hauetarako lagungarri izango da:

- Ingurumenean kalte handiagoak **gutxitzeko eta saihesteko**.
- Gure baliabide naturalak beharrik gabe erabiltzea **saihesteko**.
- Energia **kontserbatzeko** eta kutsadura maila **murrizteko**.

Birziklatzea hondakin solidoak gutxitzeko ere garrantzitsua izan daiteke, produktu berriak manufakturatzerakoan hondakin horiek berrerabiltzen baitira. Birziklatutako *paper-tona bakoitzeko, 17 zuhaitz* salbatzen dira, eta *21.000 litro ur* aurrezten dira. Halaber, airearen kutsadura 30 kilogramotan gutxitzen da, eta hondakin 2,3 m³ saihesten dira.

Ontziak eta bilgarriak gutxitzea eta berrerabiltzea dira hondakinak alferrik galtzea saihesteko giltza. Ameriketako Estatu Batuetan, esaterako, urtean 64 milioi tona bilgarri alferrik galtzen dira. Baina zenbait konpainia ontzi kutsatzaile horien inguruko ikuspuntua aldatzen ari dira.

😊 Urratsez urrats

Gure eguneroko bizitzan sortzen dugun hondakin-kopurua murrizteko, hona hemen hainbat bide erraz. Gogoan izan *5 gomendio* hauek:

- ▶ Ezinbestekoak ez diren bilgarriak **baztertu**, eta gehiegizko bilgarririk ez duten produktuen erabilera indartu ezazu.
- ▶ Ahal izanez gero, **itzul** itzazu berriz bete daitezkeen botilak eta ontziak; eros itzazu itzultzeko botilak.
- ▶ **Berrerabili** eta berriz bete, ahal den guztietan. Badira berriz erabil daitezkeen artikulak, hala nola, gutunazalak, botilak eta plastikozko poltsak. Erabiltzen ez duzun arropa benefizentzia-zentroetara eraman ezazu; horrela, birziklatzeaz gain, beste norbaitek zure arropak estimatuko eta baliatuko ditu.
- ▶ Gauzak bota beharrean, **konpon** itzazu.
- ▶ Papera eta kartoia, ontzi-hondakinak (latak, plastikozkoak eta brik-motako ontziak) eta botilak **birzikla** itzazu, zure herriko gaikako bilketa-ereduari jarraiki. Etxeko hondakin organikoekin konposta egin ezazu.

Kiunga-ko Itsas Erreserbak, Kenya iparraldean, ez du arrezifeen babesik. Zaborra hondartzara heltzen da eta kutsatzeaz gain, dortokaren habiaratzea mehatxatu ere egiten du. **KIUNGA ECO-FRIENDLY HANDICRAFTS**ek zaborra jasotzen du eta jostailuak egiten ditu. Txankleta zaharrak jostailuzko eskuko telefono eta auto bihurtzen dira.

Deforestazioa eta lehengaien erauzketa, esate baterako.

Birziklatutako paperaren eta paperaren erabilerarekin loturiko ohitura onen ingurumen-abantailei buruz gehiago jakin baduzu, hona hemen zenbait webgune: www.reciclapapel.org; www.wastewatch.org.uk; www.recycle.net Birziklatutako eta birzikla daitezkeen materialari buruzko glosategi bat kontsultatu nahi baduzu: www.grn.com/grn/library/gloss; www.recycledproducts.org.uk/buy-recycled/glossary.htm. Gaztelaniaz, aldiz: <http://redcicla.com>; [www.waste.reciclapapel.org](http://waste.reciclapapel.org); <http://waste.reciclapapel.org>

PHILIPS DESIGNek, adibidez, **PHILIPS CONSUMER ELECTRONICS**en kartera osatu zuten 80.000 produktu baino gehiago diseinatzeko programa orokor bat sortu zuen. www.design.philips.com/portfolio/casestudies/pacman



Ez ahaztu...

- Birziklagarriak diren produktuak ez dira beti material birziklatuekin egiten.
- Kontsumitzailearen ardura da hondakinak gaika bereiztea eta gaikako bilketa-zerbitzuak erabiltzea, beraz, zure esku dago produktu askoren birziklagarritasuna.

Hori dela eta, gogoan izan...

Espainiako legediak ez duela behartzen plastikoetan birziklatzearen ikurrak jartzera. Etiketa hori ez izateak ez du esan nahi ezin denik birziklatu. Produktu batek puntu berdea izateak ez du esan nahi produktu horrek ingurumen-ezaugarri jakin batzuk betetzen dituenik (ez du produktu birziklatua izan beharrik), baizik eta fabrikatzaileak Espainiako ontzi-hondakinak kudeatzeko sistema integratuaren (Ecoembalajes España S.A.) kuota ordaintzen duela. Moebiusen triangelua birziklatzearekin lotzen da, zenbait kasutan, inolako kontrolik gabe. Kontsumo-produktuen ingurumen-ezaugarriak zehazkiago adierazten dituzten etiketak eta ingurumen-ziurtagiriak badira.

Plastikoa: birziklatze-etiketak

Ardura apur batekin, plastiko gehiena birzikla daiteke. Gainera, birziklatzeko plastikoen bilketa nabarmen ugartzen ari da. Hala ere, plastikoen birziklapenak badu arazo larri bat: birziklatu ahal izateko, ez dira plastiko-mota ezberdinak nahastu behar, baina ikusi hutsarekin edo ukitzearekin bakarrik bereiztea ia ezinezkoa da. Behar ez den plastiko-kopurua txiki-txikia izanda ere, urteza zapuztu daiteke.

Arazo horren aurrean, plastikoaren industriak kolore-kodeak sortu ditu; normalean plastikozko ontzien azpiko aldean egoten dira.

1 eta 2 motak birzikla daitezke, orokorrean. 4 mota ez da hainbeste birziklatzen.

Beste motak ez dira birziklatzen normalean, saiakeretako programa txikien kasuan izan ezik.

Espainian egoera bestelakoa da, izan ere, ez baitago kolore-koderik; gaur egun, hauxe da plastikozko hondakinen birziklatzearen egoera:

Polietilentereftalatoa (PET). Birzikla daiteke, eta lo-zakuak eta berokiak, taula isolatzaileak, moketak, autoetako piezak, etab. egiteko zuntzak sortzen dira. Binilo-polikloruroa (PVC). Dutzako gortinak, alfonbrak, zolak, etab. egiteko birziklatzen da.

Dentsitate altuko polietilenoa (PEAD). Birziklatzerakoan galautsa sortzen da, tutuak, poltsak eta jostailuak egiteko.

Plastiko nahastuak. Lorategietako altzariak egiteko: eserlekuak, hesiak, etab.

Material isolatzailea eta bibrazioak irensten dituen sortzeko (material eta isolatzaile sismikoak) erabiltzen da, baita bilgarriak egiteko eta babeserako materiala sortzeko ere.

Bila ezazu birziklatze-logotipoa. Erosle izanik, zure erosteko ahalmenaz balia zaitezke gauzak aldatzeko. Kontuz: produktuaren edukiaren zati bat (begira izeaiezu ehunekoei) birziklatuak direla besterik ez dute adierazten hainbat produkturen etiketek; beste zenbait, aldiz, produktuaren osagaiak erraz birzikla daitezkeela jakinarazten dute.

Birziklapenaren aukerak

Ekadorren, Grupo Alternativo Alandaluz-ek hondakinak birziklatzen ditu, beste jardueren artean. Hondakin organikoekin ongarriak egiten dituzte, baratz biologikoetarako. Hondakin ez-organikoak sailkatu egiten dituzte, eta batzuk Guayaquileko birziklapen-enpresetara saltzen dituzte. Hondakinak erabiltzeko sistema integral bat ere garatu zuten, birziklatze-patio bat jarrita. Ekimen hori ikusita, Ekuadorreko Guayas iparraldeko eta Manabí hegoaldeko 40 komunitate baino gehiagotan hondakinak bereizteko eta sailkatzeko programak abiarazi dituzte, gero saltzeko. Argibide gehiago izateko: <http://www.alandaluz.com/>.

Tragamovil proiektua 2000. urtean sortu zen, Elektronika eta Komunikazioetako Espainiako Enpresen Sektorearteko Elkarteak bultzatuta, Estatu Espainolean eskuko telefonoak jaso eta birziklatzeko asmoz. Urte hartan, 41 milioi telefonoetatik, 12 milioiren bat ez ziren erabiltzen, eta ez zekiten non zeuden.

Argibide gehiago izateko: www.tragamovil.com



Optimizatu energiak



“Norberaren erantzukizuna da ahal duguna egitea, gutxi izan arren. Gelatik ateratzean argia itzaltzen badugu, itxuraz ez da ezer gertatzen, baina horregatik ez diogu itzaltzeari utzi behar.”

[XIV. Dalai Lama, buruzagi erlijiosoa]

WORLD RESOURCES INSTITUTE:
www.wri.org/wri/trends/index

Ibid. Clayton, op. cit., p. 97.

www.fuelcellpark.com

Ingurumenarekin kezka duen kontsumitzailearentzat, material birziklatuz egindako produktuak bilatzea erosketen parte bihurtu da. Esate baterako, badira birziklatutako paperaz egindako produktu ugari: arropa, altzariak eta jostailuak, besteak beste.

Mendeak joan, mendeak etorri, gizonek eta emakumeek Lurreko baliabideak erabili izan dituzte, agortezinak izango balira bezala. Energiaren erabilera orokorra ia % 70 handitu da azken 30 urteotan. Eta are okerrago dena, datozen 15 urtetan kontsumoa urtero % 2 handituko dela aurreikusi dute.

Urtebetean, munduan kontsumitzen den petrolio-kopurua sortzeko, naturak milioi bat urte behar izan zituen. Egindako kalkuluaren arabera, petrolio erresebak datozen 60 urtetan agor daitezke. Gure ohiko energia-iturriak – ikatza eta petrolioia – erregai fosilak dira. Milioika urtetan hildako animalien eta landareen hondakinetatik sortu direlako deitzen zaie horrela.

Ba al zenekien posible dela iraunkortasun-irizpideei jarraiki eraikitzea?

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, IHOBE, SA Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila, Orubide eta Visesa Sozietate Publikoen bitartez, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Saila, EEE-CADEM erakundearen bitartez, baterako proiektua garatzen ari dira, ingurumenaren aldetik iraunkorra izango den eraikuntza bultzatzeko. Horretarako, honako oinarrizko bi tresna hauek lantzen ari dira: Batetik, ERAIKUNTZA

IRAUNKORREKO GIDA bat, etxebizitzak eraikitzeko proiektuetan jarduera iraunkorrak egiteko abian jarri beharreko neurriak biltze aldera; eta, bestetik, BALORAZIO KODE bat. Kode horrek eraikuntza-proiektu baten iraunkortasun-maila ebaluatzeko prozedura hartuko du barnean. Hain zuzen ere, eraikuntza-prozesuko urrats guztiei aplikatuko zaie proiektu hori, aurreproiektutik edo oinarrizko proiektutik eraikuntza amaitu bitarte.

Zer egiten dugu Euskadin energia optimizatzeko?

2003. urtearen erdialdean, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak Nazio Batuen "Ekintza Globaleko Plana" (GAP/EGP) programaren garapena bultzatu zuen Debabarreneko eta Urdaibaiko eskualdeetan, IHOBEren bitartez. Bi eskualde horietan bilduta dauden 27 udalerrietako 3.700 etxek bat egin zuten ekimen horrekin. Programa horren bidez, aldaketak eragin nahi ziren familien portaeretan, zaborrak sortzeari, ura eta energia kontsumitzeari, garraio bideen erabilerari edo etxerako erosketak egiteko moduari dagokienez. Programa horretan parte hartuz, lehengaien kontsumoa murriztu nahi zen, baita eguneroko jarduerekin atmosferan eragiten dugun kutsadura ere.





GreenLight
2000. urtean
hasi zen
programa
boluntarioa
da; programa
horretan,

erakunde publikoek
eta pribatuek Europako
Batzordearekin konpromisoa
hartu zuten argizatze-sistema
hobetzeko eta instalazio
berriak diseinatzeko.
GreenLight-en helburuak
honako hauek dira:

- Europa osoan, argizatzean erabiltzen den energia murriztea.
- Kutsadura eta beroketa osoa gutxitzea.
- Lan-baldintzak hobetzea... eta, aldi berean, dirua aurrezte!

Argibide gehiago izateko:
www.eu-greenlight.org



Erregai horien *gehiegizko erabilerak* kutsadura maila handia sortu du (erregai fosilak erretzean, atmosferara CO₂ emititzen da, eta beroketa osoa -ikus hurrengo kapituluari- eta euri azidoa errazteko baldintzak sortzen dira). Berritu ezin diren baliabide naturalekiko dugun mendekotasuna murriztu behar dugu. Energia-iturri *alternatiboak* eta berriztagarriak behar ditugu, *orain*.

Informazio gehiago hemen eskura dezakezu: <http://rredc.nrel.gov/tidbits>; www.solardome.com; www.solarnow.org/glossary; <http://solstice.crest.org/sustainable/index>; www.eren.doe.gov; www.greenpeace.org/espana_es/campaigns/intro?campaign_id=171692; www.wwf.es/cambio_energia.php.

Tamalez, energia eolikoa, eguzki-energia, energia geotermikoa, biomasarena edo hidroelektrikoa ez dira asko erabiltzen. Zergatik? Gobernuen energia-politikak ohiko energia-iturrien aldekoak direlako. Kapitalaren inbertsioa falta da, ikerketarako dirurik ez dago, eta iturri alternatiboek buruzko kontzientziazio-kanpainak egiteko ere ez. Hala ere, etorkizun hurbilean hori aldatuko delakoan gaude, energia garbiagoak sortzeko teknologia horiek guztiak hedatzen diren heinean, eta eraginkortasuna frogatzen duten heinean.

Zer egiten dugu Euskadin energia berriztagarrien erabilera errazteko?

2003. urtean, energia berriztagarriak eskaintza energetiko osoaren % 4,1 izan ziren Euskal Autonomia Erkidegoan.

2003. urtean, energia berriztagarrien bidez sortutako elektrizitatea Euskadiko kontsumo elektrikoaren % 4,5 izan zen.

2010. urtean, energia berriztagarriak Euskadiko eskaintza energetikoaren % 12 izango dira. Orobat, energia berriztagarrien bidez sortutako elektrizitatea Euskadiko kontsumo elektrikoaren % 15 izango da 2010. urtean.

Zer egiten dugu Euskadin?

Euskadiko Estrategia Energetikoa

Energiaren zentzuzko erabilera eta energia berriztagarriak izango dira Euskadiko Estrategia Energetikoaren bi ardatz nagusiak, Kiotoko protokoloan hartutako konpromisoak bete daitezen laguntze aldera (2010. urtera begira egin da estrategia hori). Izan ere, kontuan hartu beharra dago Euskadiko energia berotegi-efektuko gasen emisioen % 85 dela.

Helburu hori lortzeko, Eusko Jaurlaritzak 4.900 milioi € inbertituko ditu energiaren sektorean. Inbertsio publikoak eta diru-laguntzak 423 milioi eurora iritsiko dira.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu dute energiaren zentzuzko erabilera eta energia berriztagarriak hedatzeko eta

horiekiko sentsibilizazioa sustatzeko. Hitzarmen horren arabera, bigarren hezkuntzako ikastetxeetako sare elektrikoari konektatutako 170 instalazio fotovoltaiko jarri ziren abian 2002tik 2004ra bitarteko aldirian.

Ikastetxeekin ez ezik, 2000. urtetik EEEK 5 lankidetzaren hitzarmen bano gehiago izenpetu ditu Euskadiko udalekin. Hitzarmen horien arabera, EEEK eta udalek hainbat ekintza abian jartzeko konpromisoa hartu dute, energia modu zentzuzkoago batean erabiltzeko eta bertako baliabide berriztagarriak aprobetxatzeko. Horretarako, EEEK udalaren egoera energetikoaren txosten teknikoa egin du, eta, hori ez ezik, udal-arduradunei jardura zehatzak proposatu dizkie

Iturria: EEE (Energiaren Euskal Erakundea)
www.eve.es



*Energia ezinbestekoa da gure ia jarduera gehienetarako, jakiak prestatzeko, etxeak berotzeko, edo industrietarako indar eragile gisa. Hala ere, planetaren energia erabiltzeak, sortzeak eta alferrik galtzeak baditu ondorioak. Ibilgailuen atzetik, energia elektrikoa sortzea da Lurreko *kutsadura-iturri nagusia*.*

Energia aurrezteko banakako eta guztiontzako irtenbideak bilatu behar dira. Egunean zehar, egin ditzakegu hainbat gauza energiaren erabilera gutxitzeko. Gogoratu, energia aurreztea dirua aurreztea da!

Etxeko argindar-fakturaren % 75 giroa eta ura berotzeko izaten da. Argindarraren prezioa garestitzeak aurreztea komeni dela ikusarazi beharko liguke.



Ameriketako Estatu Batuetako Ingurumena Zaintzeko Agentziak (EPA) **Energy Star** programa sortu zuen 1992. urtean, CO₂ emisioak gutxitzeko asmoz; energiaren erabilera eraginkorra egiten duten produktuak identifikatzeko eta bultzatzeko borondatezko etiketatze-programa bat da. Energy Star zabaldu egin da eta eraikin berrietan ere aplikatzen hasi da, eraikuntzako sektore gehienetan, etxeko berogailu eta aire girotuko sistemetan, etxetresna elektriko garrantzitsuenetan, bulego-ekipoetan, argizatzean, aparailu elektronikoetan, etab. Europako Batzordeak ere bere egin du berriki Energy Star programa, eraginkortasun energetikoko etiketa orokor bihurtuz. Argibide gehiago izateko: www.energystar.gov

😊 Urratsez urrats

Hona hemen etxean energia aurrezteko moduaren hainbat adibide:

- ▶ Itzali "Erdi-itzalita" (stand by) dagoen **telebistak** piztuta dagoenean gastatzen duen energiaren laurden bat gastatzen du. Eta beste horrenbeste egin dezakezu beste etxetresna elektriko txiki askorekin...
- ▶ Eros itzazu energia aldetik eraginkorrak diren **bonbillak** eta konpaktu fluoreszenteak. Inor ez dagoen geletan, argia itzali.
- ▶ Jaitsi **berogailuaren** graduak. Hotz bazara, jantzi arropa gehiago, berogailua igo beharrean.
- ▶ Erabil ezazu behar duzun ur beroa bakarrik, eta bainatu beharrean, dutxatu zaitez.
- ▶ Erabil itzazu argindar-sareari konektatzen diren **tresna** elektrikoak. Kontsumitutako pilak eta bateriak oso kutsatzaileak dira. Pilak behar badituzu, berriz kargatzekoak izan daitezela.
- ▶ **Ateak** eta **leihoak** hermetikoki itxi, aire-korronterik sar ez dadin.
- ▶ Etxetresna elektriko zaharren orde, eros itzazu energia modu eraginkorragoan erabiliko duten berriak.



[youthxchange.net/
test-&-game](http://youthxchange.net/test-&-game)



Iragar ezazu eguraldia

“Hainbat jendek dioenez, pertsonen jardueraren ondorio den berotze-efektuak ez du beroketa osoa eragiten; Lurra laua dela pentsatzen dutenen maila berdinean daude horiek.”

[Gerhard Berz, zientzialaria]

Berotze-efektua eragiten duten gasek Lurraren inguruan geruza isolatzaile bat osatzen dute, beirak berotze batean egiten duenaren antzekoa, eguzki-izpien beroa harrapatuta, eta horregatik lotzen dituzte negutegiarekin hainbat hizkuntzatan. Horri buruzko datu gehiago, Klima Aldaketari buruzko Gobernuarteko Panelean (IPCC) –Munduko Meteorologia Erakundea eta UNEP: www.ipcc.ch; <http://unfccc.int/es/index.html>; www.grida.no/climate; www.globalchange.org; www.cool-companies.org Gaztelaniaz, honako hauek dituzu: www.ecotrophia.com/temas.htm; www.greenpeace.org/espana_es/campaigns/intro?campaign_id=135612; Klima Aldaketaren inguruko Idazkaritzaren gaztelaniazko web-orrian bada dokumentu bat, oso modu ulergarrian eta osatuan klima-aldaketaren eta Kiotoko Protokoloaren alderdi garrantzitsuenak laburtzen dituena: http://unfccc.int/resource/beginner_02_sp.pdf

Kiotoko Protokoloari buruzko informazio gehiago: www.unfccc.int/resource/iuckit/fact21.



Lurraren atmosferari eta klimari eragindako kaltea oso arazo larritzat daukagu, eta horren aurrean, honako galdera hau sortzen zaigu: zer egin dezake lagun bakar batek? Baina hala eta guztiz ere, aldaketa behar-beharrezkoa da. *Beroketa osoa* eta *ozono-geruzaren gutxitzea* bi arazo ezberdin dira. Elkarri loturik daude, biek gure atmosferaren kalitatearekin zerikusia dutelako, eta gure eta planeta osoaren osasunarengan zuzeneko eragina dutelako. Ez badugu ezer egiten, ondorioak izugarriak izan daitezke Lurrarentzat.

Beroketa osoa. Azken 100 urteotan, tenperatura orokorrak gradu erdi bat inguru igo dira. Zientzialarien ustez, planeta berotzen ari da, gizon eta emakume guztien artean, gure milioika lantegiekin eta ibilgailuekin, atmosferara “*berotze-efektua eragiten duten gasak*” – karbono dioxidoa, metanoa, oxido nitrosoa eta gas fluoratuak – emititzen ari baikara, orain arte ikusi ez den moduan.

KLIMA ALDAKETARI BURUZKO GOBERNUARTEKO BATZORDEAREN (ingelesezko siglen arabera IPCC) kalkuluen arabera, Lurraren gainazaleko batez besteko tenperatura orokorrak 5,8° C inguru igoko dira, mende honen amaiera aldean, *ekintzaren bat* abiarazten ez bada. Tenperatura-igoera horrek ondorio larriak izan ditzake gizon-emakumeengan, eta bestelako bizitza-moduengan. Esate baterako, itsasoaren maila 90 cm inguru igoz gero, kostaldeko hainbat inguru eta irla txikiak urpean geratuko lirateke, edo muturreko fenomeno meteorologikoak maizago eta gogorragoak izango lirateke. *Kiotoko Protokoloa* industrializatutako herrialdeek (Ameriketako Estatu Batuek eta Australia izan ezik) hartutako konpromisoa da, 2012. urtean CO₂ emisioak % 5 gutxitzeko (1990. urteko datuekin alderatuta).



Hala eta guztiz ere, murriztea lehen urratsa baino ez da. Klima aldaketak eragindako kaltea leheneratzeko aukera dugu, betiere egungo kontsumitzeko eta produzitzeko modua *aldatzeko ahalegina eginez gero*. Adituen ustez, 2050. urtea baino lehen CO₂ren emisioak orokorrean % 60 gutxitu beharko liriateke, kliman aldaketa katastrofikoa gerta ez dadin.

Ozono-geruzaren zuloa. Lurraren mailan, ozonoa gas pozoitsua da, baina 25 kilometroko altitudetan, ozono-geruza fin batek planeta osoa inguratzen du, eta eguzki-izpiez babesten gaitu. Geruza horrek berebiziko garrantzia du Lurreko biziarentzat. Azalean minbizia eta begietako gaixotasunak, eta landareei eta animaliei kalteak eragiten dizkien eguzkitik datorren argi ultramore (UV) ia guztia xurgatzen du. Ozono-geruza suntsitzen duten gasak 111 urte arte iraun dezakete aktibo eta estratosferan kaltea egiten.

1985. urtean, zientzialariek zulo bat atzeman zuten ozono-geruzan. Zulo hori Antartidaren gainean dago, eta gero eta handiagoa da. Orain arte, ozono-geruza babeslearen % 10 suntsitu da. Klorofluorokarbonoak, **CFCak** dira, hein handi batean, "jada ez dagoen" ozono-geruzaren zatiaren suntsipenaren erantzule.

Lurralde industrializatuetan ozono geruza suntsitzen duten sustantzia kimikoen erabilera murrizteko akordioa hartu dute, bai debeku bitartez zein bere mailaz mailako ezabaketaren bitartez. Garapen bidean dauden herrialdeetan ordea, bere erabilera 2010 urterarte baimenduko da.

IPCCren arabera, CO₂ren emisioen horrelako berehalako murrizketa egitea ezinezkoa da, baina beroketa osoa geldiarazteko beharrezkoak diren hainbat neurri zorrotz adierazi dituzte.

Substantzia horiek, hasiera batean, hozkailuetako likido hoztaile gisa erabiltzen hasi ziren, eta aurrerago, aire girotuko gailuetan. CFCak ere asko erabiltzen dira aerosoletan, lainoztagailu gisa. Horri buruzko informazio gehiago: UNEP DITE, Energy and Ozonaction Unit. Email: ozonaction@unep.fr ; www.uneptie.org/ozonaction



Klima-aldaketa geldiaraziz. Beroketa osoa ez da bera bakarrik geldituko. Produkzio-prozesuak gero eta hobeto erabiltzeak, eta energia-kopuru txikiagoa behar duten produktu eraginkorrak egiteak ohiko industria-praktika bihurtu behar dute. Enpresek zeresan handia dute CO₂ emisioak murrizteko teknologiak merkaturatzeko eta sustatzeko garaian. Hona hemen enpresek arlo horretan egin dezaketenen hainbat adibide:

Argindarra sortzeko eta ikatza ordezkatzeko proiektua. **Kolonbiako INCAUCA, S.A. azukre-enpresak** energia elektrikoa sortzeko gaitasuna handitu nahi du, aldi berean enpresako galdaretan erabiltzen zuten ikatza azukre-kanaberaren hondakinekin ordeztuz, zati batean bederen. Bi jarduera horiek batera abiarazita, CO₂ emisioa urtean 40.000 tona murrizteko aukera dute. Argibide gehiago izateko: http://www.cecodes.org.co/cambio_climatico/legislacion/BoletinOCMCCNo1mayo04.pdf

Cementos de El Salvador: labeak, basoak eta klima-aldaketa. 1997ko ekoizpen-teknologia aldatuta, CESSAk argindar-kontsumoa murriztu du, CO₂ren eta oxido nitroso partikulen emisioak gutxitu ditu. Ideia horren jarraipen gisa, CESSA urtean lau hektarea oihaneztatzen ari da, batez beste. Oihan-hektarea bakoitzak CO₂ emisioen lau tona xurgatzen ditu.

CeroCO₂, klima zaintzearen aldeko ekimena, klima-aldaketaren aurrean ekintza sustatzea helburu duen proiektua da, enpresetatik, administrazioetatik, irabazi asmorik gabeko erakundeetatik eta Espainiako eta Latinoamerikako biztanleengandik. Proiektuaren estrategian hiru ekintza zehatz barne hartzen dira: atmosferara emititzen diren berotze-efektua eragiten duten gasak zenbatzea; energia-eraginkortasuna hobetuz, eta energia berriztagarriak erabiliz, emisioak murriztea; eta Latinoamerikan emisioen murrizte eta xurgatze proiektuen bitartez, gainerako emisioak konpentsatzea. Klima-aldaketan zenbaterainoko eragina duzun jakin nahi izanez gero, baita zer egin dezakezun ere, sar zaitez www.ceroco2.org web-orrian



[youthxchange.net/
carrying-the-torch](http://youthxchange.net/carrying-the-torch)



Gai konplexu hauen inguruan gehiago jakin nahi baduzu, nabiga ezazu orri hauetan:
www.safeclimate.net;
www.climatevoice.org;
www.iisd.org/youth/internetcafe. Gaztelaniaz, honako hauek dituzu:
www.mma.es/oecc/ccespana.htm; <http://unfccc.int/es/index.html>;
www.greenfacts.org/es/index.htm

Esate baterako, NIKE kirol-oinetakoen multinazionalak eta beste hiru konpainiek bat egin dute WWF'S CLIMATE SAVERS PROGRAM programarekin, berotze-efektua eragiten duten gasen emisioa murrizteko ekimen boluntario batekin:
www.nikebiz.com; www.panda.org/climate/savers.

Garapen Iraunkorren aldeko Enpresen Munduko Kontseiluak (WBCSD, ingelesez) klima aldaketaren, enpresen eta gainerako alde interesatuen (stakeholders) arteko loturak aztertzen ditu. Ikus ditzakezun web-orriak: www.mma.es/oecc/ccespana.htm; <http://unfccc.int/es/index.html>; www.greenfacts.org/es/index.htm

Inoiz ez da berandu lanari ekiteko. Ozono-geruza osatu daiteke berriro, substantzia suntsitzaile gutxiago erabiltzen baditugu. Dena dela, substantzia horiek guztiak bihar debekatuko balituzte ere, oraindik 40 urte beharko liriateke ozono-geruza berriz osatzeko.

Luzaroan erregai fosilak itxuraz eskuragarri izateak beste alternatiba garbiagoak aintzat ez hartzea eragin du. Eta horren ondorioa honako hau da: oraindik ere, energia-iturri tradizionalen mende gaudela, hein handi batean, eta gure eta planetaren osasunean horren eragina pairatzen ari garela. Energia-iturri berriztagarriekin erregai fosilak modu bideragarrian ordezkatu ahal izateko, denbora, diru eta "pertsonen energia" gehiago inbertitu behar dugu. Kontsumitzaile arduratsuek ere zeresan handia dugu: gure ekintza positiboan bitartez, "iraunkortasunaren jarraitzaileen kluba" gero eta handiagoa izango da! Multinazional boteretsuek zailtasunak izango dituzte arrakasta izaten jarraitzeko, gure kezken aurrean ez-ikusiarrena egiten badute.

😊 Urratsez urrats

Klima-aldaketa eta ozono-geruzaren suntsitzea kontrolatzeko, zuk ere zerbait egin dezakezu:

- ▶ **Ez erabili aerosolak.** Gaur egun CFCrik ez duten arren, badituzte beste hainbat substantzia kimiko kutsatzaile, birziklatu ezin direnak.
- ▶ Zure **hozkailu** berriak CFC gutxi edo batere ez izan dezala. Europar Batasunean, CFCak debekatuta daude 1995. urteaz geroztik. Ez bota zure hozkailu zaharra. Dei izeaiozu fabrikatzaileari eta CFCak kentzeko eskatu. Gas horiek birzikla daitezke eta birziklatu behar dira!
- ▶ Zure **autoa edo motordun ibilgailua** ahal den gutxien erabili. Ibilgailuak dira CO₂ emisioaren banakako iturri handiena, eta bestelako berotze-gasak ere sortzen dituzte.



Aurreztu ura, ziurtatu ura



Edan egiten dugu, horrekin garbitzen ditugu gure gorputzak, ontziak, arropa, etxeak eta autoak. Pertsonen gorputza urez osatua dago, ia osorik. Elikagaiak ez lirateke haziko urik gabe; organismo bizidun guztien *biziraupenerako hil ala bizikoa da*. Jan gabe ia *hilabete* 1 iraun daiteke, baina urik gabe, *5 eta 7 egun bitartean* baino ez.

Lurreko uraren % 97 ozeanoetakoa da, eta pertsonentzat ez da erabilgarria. Munduko ur guztiaren % 1 baino gutxiago edateko eta beste erabileretarako erabilgarria da, hala nola, nekazaritzarako eta industriarako. Hornidura hori ibaieetatik, urtegietatik eta akuiferoetatik, eta lurpeko iturrietatik dator.

Mundu guztian, uraren kontsumoa gero eta handiagoa da. Hain oinarrizkoa eta funtsezkoa den elementu hori, ura alegia, eskuragarri izatea datozen urteetako arazo *larrienetakoa eta gatazkatsuenetakoa* bihur daiteke.

Eskaera handiago horri eutsiz gero, ekonomikoki ustigarria den ura *agortu egingo da* hainbat inguruetan, *2005. urterako*. Eta 2025. urterako, mundu osoko biztanleen bi herena ur-eskasia larria pairatzeko arriskuan egongo da.

“Mende honetako gerra gehienak petrolioak eragindakoak izan ziren, baina datorren mendekoak urarengatik izango dira.”

[Ismail Seragelgin, Munduko Bankua, 1995]

Nola kudeatzen dugu ura gure udaletan?

Vitoria-Gasteizen **Ura Aurrezteko Plan Integrala** (PIAA/UAPI) onartu da. Hiriak baliabideen erabilera iraunkorra sustatzeko konpromisoa hartu du, Tokiko Agenda 21 programaren bitartez, eta plana konpromiso horretatik sortu da. Landutako UAPI horrek Vitoria/Gasteizko herritarrak kontzientziatu nahi ditu, baliabide horren kontsumo-ohiturei buruz hausnarketa egin dezaten. Planaren gakoak honako hauek dira: batetik, kontsumo-ohitura egoki batzuk abian jartzea, eta, bestetik, aurrezte-gailuak erabiltzen hastea. UAPI hamabi programa operatibotan egituratu da, eta hiriko ur-zikloan esku hartzen duten alderdi guztiei dagozkien neurriak hartzen ditu barnean. Plan hori bereziki

herritar guztiei dagozkien aurrezte-neurrietan oinarritu da, baina berariazko alderdi batzuk ere hartu dira aintzat, ikastetxeetan ekoauditoreak egitea edo merkataritzaguneetarako gidak egitea, esaterako. Uraren banaketan eta kontsumoan inplikaturako eragileen artean ur-aurrezteak sustatzea da planaren helburua.

Programa horri esker, gaur egun gasteiztar bakoitzak 129 litro ur kontsumitzen ditu egunean, batez besteko nazionalaren (250 eta 300 litro bitarte egunean) erdia.

Informazio gehiago nahi izanez gero, sartu www.amvisa.org (Aguas Municipales de Vitoria-Gasteiz) web-orrian.



youthxchange.net/facts&figures

Munduko biztanleen ehuneko handi batek *-2 mila milioi* lagunek ez du edateko ura lortzeko aukerarik. Mundu osoan, *4 mila milioi* lagun baino gehiagok ez du iturriko urrik etxean. Afrikako zenbait tokitan, emakumeek eta hurrek *20 litro* ur eraman behar izaten dituzte, askotan *5 orduko* bidea eginez, gertuen duten hornidura-iturritik etxeraino. Ordea, herrialde industrializatueta, hiriko batez besteko etxebizitza batean, *4,6* lagun bizi diren etxean, egunean *640 litro* ur erabiltzen dira.

www.thewaterpage.com

Estatistika horiek beldurgarriak dira, eta litekeena da etorkizunean inoiz ez bezalako hondamendia gertatzea, uraren kontserbazioari eta kudeaketari merezi duen seriotasunez heltzen ez badiogu.

www.panda.org/livingwaters/initiatives/wetlands

Azken aldiko hainbat ikerketaren arabera, ur gezatako (*zingirak*, lakuak eta ibaiak) ekosistemen balio ekonomikoa handia da. Baina hala ere, mundu osoko ur gezako ekosistemak arrisku larrian daude. 30 urteren buruan, Aral Itsasoa -munduko laugarren laku handiena zena- hasierako neurriaren erdira txikitu da, eta ozeanoa bezain gazi bihurtu da.

Hirurogeiko hamarkadan, itsasoranzko ur-emaria kezkatzeko moduan gutxitzen hasi zen. Asia Erdialdeko Tian Shan mendietatik berez jaisten ziren korronteen % 90 baino gehiago kontsumitu zuten arroza eta kotoia lantzeko ureztatze-sistemek. Horren ondorioz, Itsasoaren gainazala txikitu egin zen. Argibide gehiago izateko: <http://nailaokda.8m.com/aral>.

Mundu industrializatuak etengabe kutsatzen ditu ur-hornidurak, ibaiak eta itsasoak, ekologiaren oreka arriskuan jarritz. Egutero, herritarrok elementu kutsatzaileak isurtzen ditugu uraren hainbat ziklotan: ur zikinak itsasora botatzen hasi, eta gure ibaietan substantzia kimiko arriskutsuak uzteraino.

Uraren kalitatea kantitatea bezain garrantzitsua da. Berriki, Erresuma Batuko edateko uretan 43 pestizida atzeman zituzten, baina lege baimendutako maila gaindituta. Ura kutsatzen duten elementuen zerrenda amaiezina da: belarpoziak, nitratoak, fosfatoak, beruna, olioak eta beste hainbat substantzia kimiko industrial.

Urari buruzko informazio-egarri al zara?

UNESCOren URAREN ATARIA ikus dezakezu: www.unesco.org/water. Beste hainbat orri garrantzitsu: www.agua-dulce.org; www.gpa.unep.org; www.unizar.es/fnca; http://hispania.cedex.es; www.aguacam.com; www.aguasdesevilla.com

Xeroloregien printzipioak hobeto ezagutzeko, jo ezazu honako helbide hauetara: www.xeriscape.org; www.cabq.gov/waterconservation/xeric.html. Gaztelaniaz, beste hauetara: www.agua-dulce.org;

😊 Urratsez urrats

Ura erabiltzeko gure modua aldatzeko saiakera egiten badugu, gauzak alda daitezke. Ibaietan zenbat eta ur-kopuru txikiagoa egon, kutsaduraren kontzentrazioa orduan eta handiagoa da. Zer egin dezakegu ura aurrezteko?

- ▶ Bainatu beharrean, **dutxatu** zaituzte. Batez beste, dutxatzeko erabiltzen den uraren bikoitza erabiltzen da bainatzean.
- ▶ **Komuneko** komun-ontzi eta ura kontsumitzen duten etxetresna elektriko (**ikuzgailuak** eta **ontzi-garbigailuak**, esaterako) berriak erostean, ur-kontsumo txikia dutenak hautatu. Ura % 60 gutxiago erabil dezakezue.
- ▶ Ez garbitu hain maiz zure **arropa**. Batzuetan, ez dago benetan zikina, aireztatzearekin eta freskatzearekin nahikoa izaten da. Eta gainera, gehiago iraungo dizue.
- ▶ Ez bota komunetik behera **tanpoiak**, **xukaderak**, **pixoihalak** eta **kondoia**, batik bat, zu bizi zaren tokian ur zikinak tratatu gabe itsasoratzten badira. Horretan pentsa ezazu igeri egitera joaten zaren hurrengo aldian.
- ▶ Ez bota inoiz etxean erabiltzeko **substantzia kimikoak** (olioa, trementina-esentzia eta pintura-disolbatzaileak) isurbidetik.
- ▶ **Lorategiko** ur-erabilera planifika ezazu, xeroloregiko teknikei jarraiki, hots, ur-kontsumo arduratsua eginez.



Botilako ura: benetako kostua

Ikerketa independente baten ondorioz, Naturarentzako Mundu Funtsak (WWF, ingelesez) iturriko ura edateko gomendioa eman zien herritarrei, izan ere, askotan, botilakoa bezain ona baita. Hori ingurumenarentzako mesedegarria izango litzateke, baita kontsumitzaileen poltsikoentzat ere.

Ikerketa horren arabera, botilako ura ez da beti iturrikoa baino ziurragoa edo osasungarriagoa herrialde askotan, nahiz eta benetako balioa 1.000 aldiz biderkatuta saltzen den. Gaur egun, mundu osoan, gehien handitzen ari den edari-industria da, urtean 22.000 milioi dolar inguruko

negozio-bolumenarekin.

Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO) jakinarazi duenez, elikadura-balioaren aldetik, botilako ura ez da iturrikoa baino hobea, eta gainera, mineral-kopuru txikiak ere izan ditzake, udalerrri askotako hornidura publikoko sareetako urak bezalaxe.

Ikerketak beste datu bat ere eman du ezagutzera: urtean 1,5 milioi tona plastikoa erabiltzen dira ura botiletan sartzeko. Botila horiek egiteko eta desegiteko prozesuetan, ingurumenarentzat toxikoak diren substantzia kimikoak aska daitezke. Are gehiago, mundu osoan urtean botilan sartzten diren 89.000 milioi litro uraren laurden bat jatorrizko herrialdeetatik at kontsumitzen da. Botilako uraren garraioak sortzen dituen eta berotze-efektua eragiten duten gasen emisioa (batez ere CO₂) ere klima-aldaketaren arazo orokorrari gehitzen zaio, bai herrialdeen barruan, bai kanpoan (2001eko maiatzaren 3a).

Zaragoza, ura aurrezten duen hiria

Ekologia eta Garapena Fundazioak frogatu nahi du ur-gabeziaren arazoa konpon daitekeela, orokortua dagoen ereduari beste ikuspuntu batetik begiratu gero, merkeago, ekologikoago, azkarrago eta gizarte-gatazkarik gabe: uraren erabilera eraginkorrago bihurtuz. Proiektuaren lehen helburua honako hau da: urtebetean, Zaragozako hirian etxean erabiltzeko 1.000 milioi litro ur aurreztea. Helburu hori lortzeko, honako hauek ezinbestekotzat dauzkate: kontsumitzaileen artean ura aurrezten duen teknologiaren eskaera sustatzea, teknologia aurreztailearen merkatua indartzea, eta sektoreko profesionalak prestatzea eta informatzea. Proiektuak Zaragozako gizarte osoa barne hartzen zuen. Zaragozako kontsumo-datuek behera egin zuten: 1996an lagun batek egunean 106 litro erabiltzen zituen; 1999an, aldiz, 99 litro.

Eraikin publikoetan, industrietan, eta parke eta lorategietan uraren erabilera eraginkorrerako 50 praktika on sortzea ezarri zuten helburu berrizat, haien antzekoek ere horrelako prozesuak lantzen has zitezten. Gerora, informazio-prozesua zabaldu zen, hautatutako motetako profesional/erakunde/enpresa/instituzio guztietara.

Argibide gehiago izateko: www.ecodes.org

Uraren erabilera eraginkorra Mexikoko eraikin federaletan


1999. urtean "Programa de Austeridad Presupuestaria en la Administración Pública Federal para el año 1999/ Administrazio Publiko Federalean Aurrekontuen Soiltasun Programa 1999. urterako" argitaratu zen Mexikon; programa horretan hainbat arlotako (uraren kontsumoa barne hartuta) barne-gastua arrazionalizatzeko neurriak ezarri ziren. Harrezkero,

"Uso eficiente del agua en los edificios federales/Uraren erabilera eraginkorra eraikin federaletan" deituriko programa sortu zen, Mexikoko bulego federal guztietan ur-kontsumoa murrizteko asmoz. Comité Técnico de Manejo Ambiental/Ingurumena Gobernatzeko Batzorde Teknikoak (COTESMA) Internet eta posta elektronikoko bidezko tutoretza-zerbitzua eskaintzean oinarritzen da Mexikoko Ur Institutuak (IMTA) sustatutako programa hori. Egoitza federal bakoitzean izandako emaitzak hiru hilean behin IMTara igortzen dituzte, eta hark jasotako informazio guztia prozesatzen du, ateratako ondorioak argitaratuz.

Argibide gehiago izateko: www.imta.mx



[youthxchange.net/
best-practices](http://youthxchange.net/best-practices)



Erosketa arduratsuak



“Nonbaiteko bidegabekeria edonongo justiziarentzako mehatxua da!”

[Martin Luther King, eskubide zibilen buruzagia]

Haurren lanari golak sartuz-1996ko EUROKOPA.

1996ko Eurokopa hasi aurretik, baloiak Pakistaneko haurrek josi zituztela agertu zen prentsako titularretan. Hori dela eta, FIFAk (Futbol Elkarte Nazioarteko Federazioa) jokabide-kode bat argitaratu zuen, lehiaketetan zein baloi erabil zitezkeen zehaztuz. Kanpaina horren ondorioz, Pakistaneko baloiak produzitzeko modua aldatu egin zen.

Ezer ez erostea ez da errealista, baina gehiegi erosteari uztea ezinbestekoa da. Kontsumo Iraunkorra diogunean ez gara soilik produzitzeko eta kontsumitzeko moduak eragiten duen ingurumen-kostuz ari; *pertsona-kostuak* eta *gizarte-kostuak* ere aintzat hartu behar dira.

Dendetara eta *gure etxeetara* heltzen diren produktu asko eta asko garapen-bidean dauden herrialdeetan produzitzen dira, konpainia multinazionalentzat lan-eskua merkeagoa delako han, ia beti. Baina tratuak bidezkoa izan behar du tartean dauden guztientzat. Kontsumo Iraunkorrek gizarte-justizia defendatu behar du, eta oinarritzko giza, gizarte eta ekonomia eskubideak *errespetatu* behar ditu, *guztiantzat*, inor alde batera utzi gabe.

Nola jakin dezakegu produktu bat bidezko merkataritzakoa dela?

Bidezko merkataritzako produktuak honako betebeharrak hauei jarraiki egiten direnak dira:

- Enpresa ekoizleek antolaketa-egitura demokratiko eta parte-hartzailea izan behar dute.
- Lan-baldintza duinak: bidezko soldatak, berdintasuna gizon eta emakumeen artean, langileen osasuna arriskuan jarriko ez duten lan-baldintzak.
- Lortutako etekinak komunitatearen oinarritzko beharrei erantzuteko bideratzea (osasuna, hezkuntza eta abar).
- Ingurumenarekiko errespetua bermatzea, tokiko ingurumenak bizirik irautea kolokan jar dezaketelako produkturik erabili gabe.
- Debekatuta dago haurrek lan egitea.
- Entitate banatzailearekiko harremanean bidezko prezio bat ezartzen da, eta epe luzerako produktuak eta harreman komertzialak alde aurretik finantzatzen dira, komunitateek nor bere garapena planifikatzeko aukera izan dezaten.



Ikasi "erosten" eta "ez erosten"

Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Zuzendaritzak ardurazko erosketei buruzko tailerrak eragiten ditu haur, gazte eta helduentzat, "Tailer Ibiltariak" eta "Kontsumo Eskola" programen bitartez. Erosterakoan jarrera kritiko eta zuhurra hartu beharri buruz kontzientziatzea dute helburutzat tailer horiek.

Argitaratu diren liburuxken artean, bidezko merkataritzari eta ardurazko erosketei buruzko zenbait liburuxka nabarmentzen dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero, sartu www.kontsumo.net/formación web-orrian.



Ondasunak produzitzean eta manufakturatzean, tartean sartutako pertsonen oinarrizko eskubideak eta baldintzak aintzat hartzea beharrezkoa da Kontsumo Iraunkorrean, eta haurren lana horren adibide garbia dugu. Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) kalkuluen arabera, 5 eta 14 urte bitarteko 250 bat milioi haurrek lan egiten du. LANEren estatistikek agertzen dutenez, Afrikako 5 haurretik 2 egoera horretan dago (mundu osoko haur langileen % 32), Asiako 5 haurretik 1 (munduko osoko % 61), Latinoamerikako 6 haurretik 1 (mundu osoko % 7), eta Ozeaniako 3 haurretik 1. Afrikan bakarrik, kopuruak gora eta gora ari dira, urtean milioi bat igoz, eta 2015. urterako 100 milioietara iritsiko dela aurreikusten dute.

Indian, milaka haurrek egiten du lan pospoloak eta su artifizialak egiteko. Egunean 48-57 dolar-zentaboren ordaina jasotzen dute, asteko zazpi egunetan, egunero 10-12 ordu bitartean lan egiteagatik. Pakistanen, tapizak egiten dituzten ehuleen % 75 14 urtetik beherako neskek dira.

Hala ere, arazo hori ez da garapen-bidean dauden herrialdeetako soilik. 1998an, Ameriketako Estatu Batuetako Lan Departamenduak kalkulatu zuen, gutxi-gorabehera, "legezko" 3 milioi haur langile zeudela AEBetan (legez kanpoko 1,5 milioiaz gain). Erresuma Batuan, orain dela gutxi egindako ikerketa batean ikusi ahal izan zutenenez, 11 eta 15 urte bitarteko 750.000 haurrek lan egiten du normalean, eta batzuk astean 50 ordu egitera heltzen direla.

Zertan da bidezko merkataritza Euskadin?

Euskadin bidezko merkataritzako lehen denda zabaldu zenetik horrelako produktuen kontsumoa nabarmen igo da, eta 2003an ia 1.000.000 euro saldu ziren.

www.comerciojusto.org Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundearen orrian bidezko merkataritzako produktuak saltzen dituzten erakunde eta dendek zerrenda aurki dezakegu, baita Euskadin eta Espainian bidezko merkataritza sustatzen duten entitateen linkak ere.

Kafea da bidezko merkataritzaren produktu nagusia: dendetan ez ezik, edari beroen hainbat makinatan ere sal

eta kontsumi daiteke. Instituzioak ere (Eusko Jaurlaritza eta Vitoria/Gasteizko Udala, esaterako) hasi dira bidezko merkataritzako kafea eskaintzen, edari beroak saltzeko makinatan. Zuk ere lantokian bidezko merkataritzako kafea eduki nahi baduzu, Euskadiko SETEM Hego Haizea GKEk (www.kafeona.org) informazioa jarri nahi du zure eskura, eskaera egiteko jarraitu beharreko prozesuari buruz.

Hona beste helbide interesgarri batzuk:
www.ropalimpia.org,
www.observatoriodeltrabajo.org
 eta www.pobrezacero.org

www.ilo.org/public/spanish/index.htm.

"Investigación sobre Niñas Tejedoras en la Industria de las Alfombras/Tapizen industrian, neskatxa ehuleei buruzko ikerketa", RUGMARK Society, Pakistan, 1999: www.rugmark.org/news_facts

Begiratu Ameriketako Estatu Batuetako Lan Departamenduaren Sareko webguneari: www.dol.gov, eta Laneko Estatistiken Bulegoarenari: www.bls.gov.



[youthxchange.net/
pay-the-right-price](http://youthxchange.net/pay-the-right-price)

Haurren lanak Espainia ere hartzen du eraginpean

1998 eta 2000. urte bitartean, Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak eskatuta, UNICEFek txosten bat egin zuen: txosten horren arabera, Espainian 170.000 haur inguru ari ziren lanean (egunean 3 ordu edo gehiago eta astean 5 egunetan lan egiten zutenak soilik kontuan izanda). Beraz, eskolatutako haurren artean, 100.000ren bat etxeko lanetan aritzen dira, 15.000 familiako negozioetan, 10.000ren bat nekazaritzan eta abeltzaintzan, 4.600 lantegietan edo tailerretan, eta 2.000 herriz herriko salmentan. Iturria: "El trabajo infantil en España/Haurren lana Espainian", UNICEF, Lan Materialak, Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, 2000, Madril.

Normalean, hurrei ematen zaizkien lanek ez dute trebezia berezirik eskatzen, baina esku txikiak oso baliagarriak izaten dira (tapizak egitea, jostea, pospoloak egitea). Askotan, lan-baldintza arriskutsuetan aritzen dira, eta *fisikoki kalteberagoak* direnez, maiz gaixotu egiten dira. Orduak eta orduak aritzen dira lanean, ez dute eskola-hezkuntzarik jasotzen, ia, eta oso gutxi ordaintzen zaie.

Eta tristeena zera da: mundu osoko familia asko haurren diru-sarrerei esker bizi direla. Zenbait politikoren ustez, lana garrantzitsua eta positiboa da haurren bizitzan, baita haurren eta familien arteko erlazioan ere; beraz, aldaketak egitearen alde daude, baina ez dute nahi haurren lana amaitzerik. Arazoa konplexua da, eta funtzionatuko duen irtenbide orok haur horien familiak ere barne hartu behar ditu, modu aktiboan. Hala ere, *beste guztiaren gainetik haurra dago*. Izan ere, bizitza osoan behin bakarrik izan zaitezke haur!

AUKERA GALDUA

Lanak haurraren osasun fisikoa eta segurtasuna kolokan jartzen du, eta horretaz gain, haurraren eskubideak alde batera uzten dira, eta are garrantzitsuagoa dena, eskola-hezkuntza jasotzeko aukera kentzen zaie. 150 milioi haurrek lehen mailako hezkuntzan uzten diote eskolara joateari, lau urte baino gutxiagoko eskolatzearekin. Indiako *lau* haurretik *bat ez da inoiz eskolara joango*.

Eta hori sorgin-gurpilaren hasiera da; hezkuntzarik gabe, gaizki ordaindutako lanetatik eta pobreziatik ateratzeko aukerak nabarmen jaisten dira.



Aldi berean, garapen-bidean dauden herrialdeetan, haurren lanaren epe luzeko ondorioak ez dira oso pozgarriak. Haurrak etorkizuneko itxaropena eta indarra dira, edozein herrialdeetan. Haurrari hezkuntza ukatzea herrialdeari "giza kapitala" ukatzearen parekoa da, garapen-bidean dauden herrialdeetan hain beharrezkoak diren langile kualifikatuak eta ongi heziak ukatzearen parekoa.

872 milioi pertsona, garapen-bidean dagoen munduko 4 helduetatik 1, ez da irakurtzeko edo idazteko gai. Eta horietatik bi heren emakumeak dira. Munduko haur guztiei lehen mailako hezkuntza emateak 6.000 milioi dolarreko kostua izango luke, mundu osoko militarrek 4 egunetan gastatzen dutena, alegia.

Kontsumitzailea kontzientziatuz gero, gobernuen eta konpainien politikak zalantzan jarriz gero, eta modu etikoan produzitu dela ziur ez gauden produkturik erosten ez badugu, orduan aldaketa gerta daiteke. Kontsumitzaileek bidezko merkataritzako elkarteetara ere jo dezakegu –merkatuan gero eta gehiago daude–, horiek bermatzen dutelako euren produktuek ingurumena errespetatzen dutela eta inor esplotatu gabe eginak direla.

Haurren lanaren gaia askoz ere zabalagoa den beste gai baten alderdi esanguratsuenetakoa da: *lan-baldintzak, giza eskubideak, genero-desberdintasuna* eta garapen-bidean dauden herrialdeek bizitza duina eta iraunkorra izateko duten eskubidea errespetatzeko beharra.



Haurren lana geldiarazteko hainbat ekimen badira sarean: www.icftu.org
Gaztelaniaz:
58www.ilo.org/public/spanish/index.htm.
58www.ilo.org/public/spanish/index.htm.

PNUD, Giza Garapenari buruzko Txostena, 1998, "Consumo para el Desarrollo Humano/Giza Garapenerako Kontsumoa", webgune honetan ikus daiteke: www.undp.org/hdro/1998/98.

Giza eskubideei eta eskubideen egoerari buruz, eta zer non gertatzen denari buruz informazio gehiago nahi baduzu, jo ezazu webgune hauetara: <http://web.amnesty.org> y www.hrw.org.

Iturria: www.geocities.com/CollegePark/Library/9175/inquiry1.



youthxchange.net/awakening-your-soul

Haurren lana gutxitzea. Nahitaezko hezkuntzak haurren lana murriztu egin du. 1920tik 1930erako hamarkadan, Sri Lankako gobernuak nahitaezko hezkuntza indarrean jartzea erabaki zuen. Alfabetatze-tasak gora egin zuen: 1946an % 58 zen, eta 1984an, % 86 (UNESCO, 1991). Horren ondorioz, 10 eta 24 urte bitarteko haurren lan-tasa nabarmen jaitsi zen, 1946an % 13 zen; 1963an % 6,2, eta gaur egun, gizonezkoen artean % 5,3 eta emakumeen artean % 4,6 (LANE, 1995).

Kontsumo solidarioaren gauzatze praktikoa bidezko merkataritzatik datozen produktuak merkaturatzea da. Bidezko merkataritzaren produktuak honako printzipio hauen arabera egiten dira:

- Enpresa ekoizleak egitura demokratikoa eta parte-hartzailea izan behar du.
- Lan-baldintzak duinak izan behar dute, soldatak bidezkoak, gizonen eta emakumeen artean berdintasuna, eta lan-baldintzek ez dute jendearen osasuna arriskuan jarri behar.
- Merkataritza-harremanetan, banatzaileekin bidezko prezioak hitzartzen dira, produktuak aurrefinantzatuta, eta epe luzerako harremanak finkatuta, ekoizten duen komunitateak garapena planifikatu ahal izateko.
- Irabazien zati bat komunitatearen oinarrizko beharretan inbertitu behar da.
- Ingurumenaren errespetua bermatu behar da.
- Haurren lana espresuki debekatua dago.

Espanian bidezko merkataritzari buruzko informazio gehiago: www.e-comerciojusto.org



Azter itzazu Amnesty International erakundearen txostenak edo sar zaitez haren webgunean: www.amnistiainternacional.org/actua. Bertan, hainbat gairi buruzko informazioa lortuko duzu: tortura, judizioz kanpoko exekuzioak, kontzientzia-presoa, herritarren aurka maiz erabiltzen den indarkeria, esklabotzarekiko tolerantzia...

Informa zaitez esklabotzaren aurkako erakundeen argitalpenetan eta Interneteko guneetan, hala nola honako honetan: www.antislavery.org/selection

Ondo begiratu bilgarriari. Ohiko etiketa batzuk orrialdeotako laukietan ageri dira.

Ikus hurrengo kapitulua.

Gizakien eta animalien duintasunaren aurkako baieztapenak egiten dituztenak (adibidez, honako hauek sustatzen dituztenak: indarkeria, pedofilia, sexu-esplotazioa, esklabotza, etab.).

Lotura handia dago Kontsumo Iraunkorraren, oinarrizko giza eskubideak errespetatuko direla bermatzeko behararen eta garapena bultzatzearren artean. Pobreziak eta ingurumenaren hondatzeak (esaterako, deforestazioaren eta gehiegizko artzaintzaren bitartez) elkarri elikatzen diote, eta giza eskubideetan eta egungo eta aurreragoko belaunaldien garapenean domino-efektua eragiten dute.

Gobernuek herritarren eskubide guztiak *babestu behar* dituzte. Tamalez, kasu askotan, giza eskubideak alde batera utzi eta zapaldu egiten dira. Jendea lan-modu esplotatzaileak *zalantzan jartzen* hasi dela adierazten du kontzientziario handiagoko egoteak.

Internet kanpainak egiteko tresnatzat erabiliz, gero eta arrakastatsua goa bihurtzen ari da *boikota*. Baina boikotatu aurretik, garrantzitsua da izan ditzakeen ondorioei buruzko informazioa jasotzea, eta ekintza horrek norengan izango duen eragin handiena aztertzea, konpainian? edo babestu nahian zabilzan langileengan? Enpresei gardentasun osoa eskatzea ezinbestekoa da, aldatzen dutena kokalekua bakarrik izan ez dadin bermatzeko, izan ere, enpresa asko beste toki batera lekualdatzen baitira, baina kokaleku berriari bidegabeko jarduerarekin jarraitzen dute. Gardentasun-eskaera horrek kontsumitzaileen ekintzak bidera ditzake, eta erantzukizunak eta *helburu komunak elkarbanatzera* bultzatu, komunitate zabalago baten barruan.

😊 Urratsez urrats

Honako gomendio hauek modu etikoan erosteko lagungarri izan dakizkizuke:

- ▶ Hauta itzazu etika eta **portaera-kode garbiak** dituzten fabrikatzaileek eta merkatariek egindako eta banatutako artikuluak.
- ▶ Zure marka gogokoenak etengabe **azter itzazu**; jar zaitez harremanetan zure inguruko kontsumitzaileen elkarteren batekin eta lor ezazu marka horiei buruzko informazio gehiago. Parte har ezazu langileen lan-baldintzak hobetzeko kanpaina publikoetan.
- ▶ Saihets itzazu **giza eskubideak errespetatzen ez dituzten erregimenak** babesten dituzten enpresek eskaintzen dituzten produktuak eta zerbitzuak.
- ▶ Boikot egin iezaezu langileei soldata txikiak ordaintzen dizkieten produktoreei, edo langileak esklabo moduan dituztenei, edo euren hornitzaileek **esklabotasunari** laguntzen diotenei.
- ▶ Ahal den guztietan, hauta itzazu **"Haurren lanik gabekoa"** (*No child labour*) dioten etiketa duten produktuak eta zerbitzuak.
- ▶ hal izanez gero, hauta itzazu **"animaliekin esperimintatu GABEKOA"** dioten etiketa duten produktuak eta zerbitzuak.
- ▶ Boikot egin iezaezu esaldi **zalantzazko bideak** erabiltzen dituzten produktuei eta zerbitzuei.
- ▶ **Truka ezazu** beste kontsumitzaileekin, kontsumo-produktuekin eta etikarekin erlazioatutako informazioa eta bizipenak.

Bizi eta utzi bizitzen



“Basapizti ankerra ez dago kaiolaren barren atzean. Kaiolaren parean dago.”

[Axel Munthe, sendagilea, psikiatra eta idazlea]

Bizitza duinerako eskubidea ez dagokigu gizakiei soilik. *Naturarekin dugun elkarreraginari* eta giza jarduerak ekosistemetan dituen ondorioei buruzko kontzientzia funtsezko elementuak dira garapen iraunkorra ulertzeko.

Animaliei ematen diegun *tratu*a (kontsumorako gatibutza haztea) eta bioaniztasuna eta oreka ekologikoa zaintzea gai desberdinak dira, baina elkarri lotuta daude. Atal honetan, gai horiei buruzko informazioa aurkituko duzu. Norberari dagokio erabakiak hartzea, iraunkortasunaren testuinguruaren barruan aukeratzeko dituen bizimoduaren eta lehentasunen arabera.

ABELTEGIAK

Jendea gero eta gehiago arduratzen da produktuak egiteko prozesuan animaliek jasotzen duten tratua berri izateaz (abeltegi intentsiboak, kosmetikoak animalien gain probatzea, etab.). Ankerkeria saihesteko aukera dago, funtsezko printzipio batzuei jarraituta. Tratu itzazu errespetuz animaliak: emaezu janari eta bizileku egokia, ziurtatu albatariaren oinarritzko zaintza jasotzen dutela, bizitzeko osasun eta higiene baldintza egokiak dituztela, eta inoiz ez dituztela jotzen edota indarrez elikatzen.



CAREk (Animalien Eskubideen Aldeko Europako Lankidetzaren ingelesezko siglak) Italian eginiko kanpaina: www.infolav.org.

Beharrezkoak ez diren ankerkeriak

Abeltegiko arrautzen produkzioa hain da krudela, Europako herrialdeetan kentzen ari dira; baina oraindik ere munduko beste eskualde batzuetan erabiltzen da. Abeltegi intentsiboetan, lau oilo pilatu ohi dituzte alanbrezko kaiola txiki batean (gehienez 40,64 zentimetro izaten dituzte, 16 hazbete). Kaiolak hainbat mailatan pilatzen dira nabe izugarrietan. Oilo errule guztiei moko moztuak ematen dituzte euren artean mokoka aritzen direnean egiten dituzten lesioak murriztearren; izan ere, halako kaioletan bizi diren hegaztiak, azkenean, klaustrofobia izaten dute, asko aspertzen dira eta oldarkor bihurtzen dira. Urtean 250 arrautza baino gehiago erruten dute. Arrautzen produkzioan urtebete eman ondoren, arrautzak erruteko beste ziklo batean hasten dira oiloak, edo hil egiten dituzte. Abeltegi intentsiboko oiloak, azkenean, kalitate baxuko haragikitarako erabiltzen dituzte; izan ere, horrelako produktuetan haragi ubela kamuflatzen diete kontsumitzaileei.



youthxchange.net/
pay-the-right-price



Animaliekin
esperimentatzearen
aurkako THE
BODY SHOPen
kanpainarako
paperezko poltsa.

Nekazaritza ekologikoa
arautzeko kontseiluen ziurtagiri
ekologikoa duten animalia-
jatorriko produktuak honako
hauek bermatzen duten aukera
dira: animaliak egoki tratatu
dituztela, animalia-jatorriko
pentsurik ez dela erabili, ez eta
gizentzeko produkturik edota
beste konposatu artifizialik ere.
Ikus: www.agroecologica.net.

Iturria: <http://hometown.aol.com/c.news/index.htm>.

Konpainia horien zerrenda
lortzeko, sar zaitetz honako
honetan: www.allforanimals.com/cruelfree1.htm, edo
animaliei tratu krudela eman
gabe eginiko produktuei
buruzko informazio gehiago
lortzeko: www.naturewatch.org.
Honako orri honetan
ere sar zaitetzke: www.animalfreedom.org/espagnol/index.htm; animalien
eskubideei buruzko iradokizun
eta material ugari du atari
horrek.

Ikus www.iucn.org/infoandnews/species2000 eta
www.iucn.org/infoandnews/biodiversity2000

Gizakiek, nahita edo nahi
gabe, espezieak euren habitat
naturaletik kanpo ezartzen
dituztenean.

Elikagaien produkzioak guztiok ukitzen gaitu. Gizalegez egin ez diren produktuei uko egin diezaiekegu.

Askatasunean, landan edo etxaldeetan hazitako animalien arrautzak edo haragia aukeratzea (bila itzazu produktu ziurtatuak) hobea da animaliarentzat, bai eta kontsumitzailearentzat ere: litekeena da batzuetan abeltzgi industrialetako haragiaren eta beste produktu batzuen higieena eta kalitatea kaskarrak izatea. Elikagaiekin zerikusia duten eskandaluen —behi eroen gaixotasunarena, esate baterako— eraginez, animalien baldintza sanitarioen zein elikaduraren eta gure osasunaren arteko loturaz jabetu gara.

Kontsumitzaileek beharrezkoa ez den ankerkeria saihestu nahi dutela konturatu dira enpresak: *GIZARTE-INBERTSIOKO FOROAREN* arabera, Ameriketako Estatu Batuetan 84 mila milioi dolar inbertitzen dituzte ankerkeriarik gabeko kanpainetan eta erakundeetan, eta Europan eta beste leku batzuetan ere milaka milioi gehiago.

1979an, *REVLON* izan zen animaliekiko esperimentazioari alternatibak aurkitzeko ikerketa finantzatu zuten konpainia handietan lehena; 750.000 dolar eman zizkion Rockefeller Unibertsitateari. Beste erakunde batzuek, *Animalienganako Esperimentazioaren Alternatibetarako Johns Hopkins Zentroak (CAAT)* esate baterako, euren programak hasi dituzte alternatibak ikertzeko. Oraindik ere korporazio handiek animaliekin esperimentatzen dute, baina dagoeneko ehunka konpainiak egiten ditu bere produktuak ankerkeriarik erabili gabe.

Animaliekin eginiko esperimentazioa *gai polemikoa* da. Animaliengan eginiko probei buruz pertsonak dituzten iritzia ez dira argiak izaten beti; sarritan, norberaren pertzepzioen eta esperientzien arabera izaten dira.

ANIZTASUNEAN SENDO

Gizakiok gutxienez beste espezieetako 15 milioi izakirekin bizi gara *planeta* honetan. Espezie guztiek dute zeregin jakin bat bizitza-modu guztien euskarri diren ekosistema konplexuen eraikuntzan eta mantentzean. Espezieak izugarritzko abiadan desagertzen ari dira; ezin da ziur jakin, baina zientzialariek kalkulatu dute gaur egun espezieen suntsipena 1.000-10.000 bitarte aldira handiagoa izango zela, industria-kontrolik gabe garatuko balitz.

Desagertzeko arriskuak askotariko arrazoiak ditu, elkarren artean loturikoak denak ere. Hona hemen *espezieen* arteko *oreka ekologikoa* arriskuan jartzen duen hainbat faktore: landareak, animaliak eta horien habitata *gehiegi ustiatzea*, ekosistemetan bertakoak ez diren espezieak sartzea, bai eta klima-aldaketa, kutsadura eta gaixotasunak ere.

Aniztasuna baliabide baliotsua da: espezieen arteko lotura eta mendekotasuna kontu handiz maneiatu behar da. Farmazietan saltzen dituzten sendagai guztien % 30 inguru basa-landareen eta animalien bidez egin dituzte.

Horietako asko, zoritxarrez arriskuan dauden ekosistema bakarretan bizi dira. Bioaniztasuna babestea komenigarria da, hainbat *mailatan*: gezurra badirudi ere, bioaniztasunean aberatsenak diren munduko eskualdeetan jenderik *pobreena* bizi izaten da askotan. Mende honetako erronka bioaniztasuna *babestea* da, eta, aldi berean, baita *pobrezia ezabatzea* ere.



youthxchange.net/
best-practices

Hori lortzeko urrats egokia egin dute munduko zientzialari hoberenetako batzuek: *ANIZTASUN BIOLOGIKORAKO ITUNA* (CBD, ingelesezko sigletan) garatu dute. Itun hori ikuspegi globalaren aldekoa da, eta 180 herrialdek berretsi dute. Nazioarteko lankidetzarako deialdia egiten du itunak, aniztasun biologikoa zaintzearen, baliabide biologikoak modu iraunkorrean erabiltzearen, eta horien erabilerak sortzen dituen etekinak behar bezala banatzen direla ziurtatzearen.

Informazio gehiago aurkitzeko, sar zaitez honako honetan: www.biodiv.org/default.aspx?lg=1

Baliabideen kudeaketa efektiboa giza jardueraren hainbat sektore *berraztertzea* da, hala nola, nekazaritza, arrantza, turismoa, hezkuntza eta osasunaren zaintza. Izan ere, bioaniztasuna babesteak gizarte iraunkorrak bultzatzen ditu, batez ere *indigenen* artean, indigenek ezagutzen baituzte ondoen gertuen dituzten ekosistemak.



Sagui eta tximuei buruz. 1999an, *NEW SCIENTIST MAGAZINE* aldizkariak animaliekin esperimentatzeari buruzko inkesta bat egin zuen Britainia Handiko biztanleen artean. Aurkako iritzirik zorrotzena honako hauek eman zuten: ordurako eskariak sinatuak zituztenek, ankerkeriarik erabili gabe egindako produktuak erosten zituztenek edo barazkijaleek. Gizonak baino (% 51) emakume gehiago (% 71) ageri zen animaliekin esperimentatzearen aurka. Gaixotasun larri bat sendatzeko (animaliengan probaturiko) sendagaiak hartuta zeudenak tolerantzia handiagoa adierazi zuten animaliekin esperimentatzeari dagokionez (hala ere, % 52 horren aurka ageri ziren). Saguek sufritzea onartu zuten gehienek, betiere hori bizitza arriskuan jartzen duten gaixotasunei aurre egiteko lagungarria bada. Tximuekin eginiko esperimentuekiko tolerantzia, ordea, askoz ere urriagoa izan zen, eta haurren leuzemiari aurre egiteko drogak probatzeko eta garatzeko esperimentuak soilik hartu zituzten justifikagarritzat. Britainia Handiko biztanle gehienek HIESaren aurkako txertoa lortzeko tximuekin esperimentatzearen aurka zeudela adierazi zuten (izan ere, litekeena da esperimentu horietan tximuei HIESa kutsatzea eta horri loturiko sufrimenduak eragitea). Artikulua osorik ikusteko, jo ezazu honako honetara: www.newscientist.com/hottopics/animalexperiments/letthe.jsp

Etikaz erosten ikasten

Zure herrialdean edo atzerrian erosketak egitean hartu behar dituzun erabakietan laguntzeko, WWFk turistentzako denda eta farmazia birtual bat antolatu du. Sar zaitez eta egin ezazu klik salgai dauden artikuluetan. Mundu errealean aurkitzen badituzu, susmo txarra hartu beharko diezu: www.worldlife.org/buyerbeware

Zer naturgune ditugu Euskadin?

Euskadi kontraste ugari lurrean da, eta bertako hainbat tokik interes handia dute paisaiari eta naturari dagokienez. Gaur egun, Euskadiko azaleraren % 20k nolabaiteko babesa du. Babestutako guneen artean, honako hauek nabarmentzen dira:

• Urdaibaiko Biosferaren

Erreserba: UNESCOk (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) 1984an deklaratu zuen ingurune hori Biosferaren Erreserba. EAEko bakarra da une honetan. Biosferako Erreserbak lurreko edo kostaldeko ekosistemetak eremuak dira, eta UNESCOk sustatutako "Gizakia eta Biosfera" nazioarteko programak aintzat

hartu ditu gizateriaren eta ingurumenaren arteko harreman orekatua sustatu eta erakusteko. Naturarekiko elkarbizitzak nolakoa beharko lukeen erakustea dute helburu nagusitatzat.

- **Parke Naturalak:** Gizakiak eraldatutako eremuak dira parke naturalak, eta paisaiak eta floraren eta faunaren, eta abarren, berezitasuna dituzte ezaugarri nagusitatzat. Une honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Naturagune Babestuen Sarean honako zazpi Parke Natural hauek biltzen dira: Aiako Harriko Parke Naturala (Gipuzkoa), Aralarko Parke Naturala (Gipuzkoa), Gorbeiaiko Parke Naturala (Araba

eta Bizkaia), Izkiko Parke Naturala (Araba), Pagoetako Parke Naturala (Gipuzkoa), Urkiolako Parke Naturala (Araba eta Bizkaia), eta Valderejoko Parke Naturala (Araba).

- **Biotopo babestuak:** Euskal Autonomia Erkidegoan 5 biotopo babestu daude: Inurritza (Gipuzkoa), Itxina (Bizkaia), Laguardiako aintzirak (Araba), Gaztelugatxeko San Joan (Bizkaia), eta Leitxaran Ibaiko Biotopo Babestua (Gipuzkoa).
- **Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan 25 zuhaitz babestu eta Txingudi daude. Azken hori Babes Bereziko Eremua da.**

Informazio gehiago aurkitzeko, sar zaitez honako honetan: www.cites.org/esp/index.shtml

Espezie horiei eta beste batzuei buruzko informazioa lortzeko, sar zaitez honako gune hauetan: www.eia-international.org/Campaigns/Tigers/Reports/thailand/index; www.ecocrimes.org/cetacean_report.html#intro; www.eia-international.org/Campaigns/Elephants/Updates/t0000053; www.savedolphins.org. Espainieraz: <http://faunaiberica.org/>; www.wwf.es/especies.php; www.iucn.org/redlist/2000/spanish/species.html; www.peru.com/mundoazul/protejamos_delfines/index.asp

GALZORIAN DAUDEN ESPEZIEEN NAZIOARTEKO SALEROSKETARI BURUZKO HITZARMENAK (CITES, ingelesezko sigletan) honako hau du helburutzat:

basa landareen eta animalien salerosketak horien biziraupena arriskuan ez jartzea. *Drogen* eta *armen* trafikoa soilik da *animalien eta landareen* legez kanpoko trafikoa baino handiagoa munduan. Maskota, janari eta sendagai exotikoen eskariak (tigre-hezurra eta errinozero-adarra, esate baterako), eta beste bitxikeria batzuek elikatzen dute negozio hori, eta espezieen populazioak suntsitzen dituzte.

Zenbait kasutan, emaitza ona izan dute espezieak desagertzea edo murriztea saihesteko egin diren ahaleginak: errinozero beltza eta elefante afrikarra bi adibide ezagunak dira. 1979ren eta 1989ren artean, isilpeko ehiztariek elefante afrikarraren populazioa 1,3 milioitik 625.000 alera murriztu zuten; baina, gobernuek eta basa-fauna babesteko ekintza-talde batek elkarrekin garaturiko jardunari esker, elefanteen kopurua hazten ari da berriz ere. Hala ere, espezie ugari dago oraindik ere arriskuan.



Zur ziurtatua, FSC

Zuraren Baso Ziurtatzea

da, gaur egun, planetako basoetako kudeaketa hobetzeko eta kontrolik gabeko deforestazio-prozesua eteteko egiten ari den ekimenik garrantzitsuena. Ziurtatzeko prozesuen artean, nabarmendu beharra dago Forest Stewardship Council edo Basoa Kudeatzeko Kontseilua (FSC) erakundeak emandako ziurtagiria. FSC irabazi-asmorik gabeko nazioarteko erakundea 1993an sortu zen, eta honako hauek osatzen dute: gizarte zein ingurumen arloko taldeetako ordezkariak, zur eta baso merkatariak, herri indigenetako erakundeak, baso-talde komunitarioek eta mundu osoko baso-produktuak ziurtatzen dituzten erakundeak. Informazio gehiago: www.fsc.org. Espainian, WWF eta Greenpeace erakundeak bultzatzen dute FSC: www.fsc-spain.org

Espezie inbaditzaileak.

Papagaiak parkeetan, lutxoak Tajo ibaian, eta zezen-igelak urmaeletan: hona hemen Espainian aurki ditzakegun espezie exotikoen adibide batzuk; azken urteotan, munduko bioaniztasuna galtzearen bigarren kausa bihurtu dira espezie horiek, habitat naturalen galeraren atzetik. Izan ere, ezagutzen diren espezie-desagerpenen % 39 eragin dute. Kalkulatzen denez, Espainian bostehun espezie baino gehiago sartu ditu gizakiak orain arte.

Animalia exotikoak eta horietatik eratorritako produktuak merkaturatzen diharduten industrien ere lagundu dute espezie horiek zabaltzen. Esate baterako, bisoi amerikarra 50eko hamarkadan iritsi zen Espainiako larru-dendetara, eta bertako basoetan bizi da orain espezie autoktonoa balitz bezala. Bisoi amerikarrak estatuko basoetan bizitzeak arriskuan jartzen du oraindik ere bisoi europarraren biziraupena, horiek baino handiagoak eta oldarkorragoak baitira amerikarrak. Azken urteotan, igel-haztegiak ere jartzen hasi dira Espainiako hainbat abeltegietan; horren ondorioz, zezen-igelen hainbat kolonia agertu dira. Iparrameriketako ekialdekoak jatorriz, igel horiek oso jatunak eta handiak dira; 20 cm luze izatera ere irits daitezke; Espainiako ur-igel arruntak, aldiz, bederatziz zentimetro baino ez ditu.



Informazio gehiago lortzeko: www.consumer.es/web/es/noticias/medio_ambiente/2004/09/06/108431.php

Ekin

“Nire ustez, 2025. urteko kontsumitzaileak honako hiru ezaugarri izango ditu: zorrotzagoa, jakintsuagoa eta kezkatuagoa.”

[Mike Clasper,
Procter and Gamble Europa]



Jende guztiak erosten du; erosketak *negozio handia* dira. Globalizazioaren, komunikabide berrien hedapenaren eta informazioa gero eta eskuragarriagoa izatearen ondorioz, besteak beste, erosten dugunak planetan dituen eraginei buruzko kontzientzia piztu da. Eragin horiek hiru arlotakoak dira, ingurumen, gizarte eta ekonomia arloetakoak, hain zuzen ere.

